



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko irailak 1
Ordua: 09:05 – 11:15
Tokia: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratutakoak:

Iñigo Gómez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
José Luis de Valle Duque
María Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martínez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, idazkaria eta kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko maiatzaren 30ean eta ekainaren 2an egindako saioetako aktak zirriborroan onartzea, hala badagokio.

Oharrik egin ez denez, 2016ko maiatzaren 30ean egindako saioeko akta bozkatu da:

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Arkaitz San Jose Martínez, EHBildu alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

Oharrik egin ez denez, 2016ko ekainaren 2an egindako saioeko akta bozkatu da:

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Arkaitz San Jose Martínez, EHBildu alderdikoa (1);

José Luis de Valle Duque, EAJ-PNV alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).



Onartuta geratu da.

2. Aiarako Koadrilari hiri-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuarekin lotutako eskumenak ematea.

“2016KO UZTAILAREN 8AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

GAIA: Hiri-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuarekin lotutako eskumenak ematea.

2006ko ekainaren 6an, Artziniegako Udaleko osoko bilkurak onartu egin zuen Aiarako Koadrilari hiri-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuarekin lotutako eskumenak ematea, garai hartan indarrean zegoen apirilaren 21eko hondakinen inguruko 10/1998 Legearen 4.3 artikuluan eta apirilaren 2ko toki-araubidearen oinarrien inguruko 7/1985 Legearen 25 l) artikuluan xedatutako eskumena baliatuz. Akordio horren oinarria izan zen: *“herriak duen alor honetako zerbitzuak elkartzeko interesa, ondorioz, zenbait udal eskumen Koadrilaren eskuetan utziz, zerbitzuaren kudeaketa integrala egiteko, inbertsioen errentagarritasuna hobetzeko, erabilitako instalazioen eta baliabideen errendimendu eraginkorragoa lortzeko eta, erabilitako baliabideak optimizatuz, zerbitzua hobetzeko”*.

Igarotako denboran zehar, bai Artziniegako Udalak eta baita Aiarako Koadrilak, ekoizleek eta hondakinen kudeatzaileek ere esperientzia eta trebakuntza hartu dute alor honetan, aurreko akordioa hartzeko momentuan zutena baino askoz handiagoa. Bestalde, hondakinen prebentzioak, ekoizpenak eta kudeaketak eta horien atzean dauden printzipioek bilakaera handia bizi izan dute. Gainera, aldaketa klimatikoaren aurkako borroka da orain ingurumen-politikaren benetako lehentasuna eta, hondakinek aldaketa klimatikoan duten eragina txikia izan arren bestelako sektoreekin alderatuta, badago hondakinen alorrekin lotutako berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizteko potentzial garrantzitsua.

Azaldutako gizarte-bilakaera honen ondorioz, legediaren bilakaera ere harrigarria izan da. Berez, hondakinen eta lur kutsatuen uztailearen 28ko 22/2011 estatuko Legeak indargabe utzi zuen hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legea, bai eta ontzi eta bilgarri eta bilgarri-hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legearen zehapen-araubideari buruzko VII. kapitulua eta bosgarren xedapen gehigarria, lege horren gainerako manuak erregelamendu-mailarekin utzita.

Hondakinen eta lur kutsatuen 22/2011 Lege honen 12.5 artikuluan, honakoa adierazten da berariaz:

5.- Toki-erakundeei dagokie, edo foru-aldundiei, egokia denean:

a) Derrigorrezko zerbitzu gisa, etxeetan, dendetan eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, Lege honetan ezarritako esparru juridikoaren barneko ordenantzetan xedatutako moduan, kasuaren arabera autonomia-erkidegoek igorritako ordenantzen arabera eta ekoizlearen erantzukizun zabalduaren alorreko araudiaren arabera. Zerbitzu hau ematea udalerriei dagokie eta modu independentean edo elkartuta eman ahalko dute.

b) Beren eskumenen barruan, ikuskaritza- eta zaintza-ahalmena eta zehapen-ahalmena baliatzea.

c) Toki-erakundeek ondorengo ekintzak burutu ahalko dituzte:

• 1. Beren eskumenen barneko hondakinen prebentzio- eta kudeaketa-programak prestatzea.



- 2. *Merkataritza-hondakin ez arriskutsuak eta industrian sortutako etxeko hondakinak kudeatzea, dagokien ordenantzan ezarritakoaren arabera, hondakin horien ekoizleek hondakin horiek beren kabuz kudeatzeko duten ahalmena kaltetu gabe, 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Toki-erakundeak bere kudeaketa-sistema propioa ezartzen badu, galdatu ahalko du, zenbait kasutan, hondakinen ekoizleak derrigorrez sistema horren barne sartzea, betiere hondakinen kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko bada eta beharrezko azalpenak emanez.*

- 3. *Ordenantzak erabiliz, etxeko hondakin arriskutsuen edo kudeaketa zailtzen duten ezaugarriak dituzten hondakinen ekoizle edo edukitzaileak behartzea ezaugarri horiek kendu edo murrizteko neurriak hartzea, edo hondakin horiek modu eta toki egokian uztea.*

- 4. *Beren hondakin-kudeaketa jarduerak burutzea, zuzenean edo toki-araubideari buruzko legediak onartutako beste edozein modutan. Jarduera horiek toki-erakunde bakoitzak gauzatu ahalko ditu bere kabuz edo hainbat toki-erakundek osatutako elkarte batean.*

6. *Herri-administrazioek, beren eskumenen alor barruan, zerbitzu publikotzat jo ahalko dituzte hondakin jakinen kudeaketarako eragiketa guztiak edo batzuk, betiere behar bezala justifikatzen bada erabaki hori giza osasunaren eta ingurumenaren babeserako arrazoi bidez.*

Bestalde, 17.3 artikulua honakoa gehitzen du:

3. *Merkataritza-hondakin ez arriskutsuen hasierako ekoizleak edo bestelako edukitzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du bere hondakinen kudeaketa egokia toki-erakundearen aurrean, edo hondakin horien kudeaketarako sistema publikoa erabili ahalko du, halakorik bada, toki-erakundearen ordenantzek xedatutako baldintzen arabera.*

Ekoizleak edo edukitzaileak merkataritza-hondakin ez arriskutsuekin lotutako obligazioak beteko ez balitu, toki-erakundeak modu subsidiarioan hartuko du bere gain kudeaketa eta obligaziodunari kobratu ahalko dio kudeaketa horren kostu erreala. Guzti hori obligaziodunari dagozkion erantzukizunak kaltetu gabe.

Halaber, 21.3 eta 21.4 artikuluek xedatzen dute:

3. *Toki-erakundeek etxeko hondakinak eta, dagokionean, merkataritza-hondakinak bereizita jasotzeko espazioak, tresnak eta neurriak prestatuko dituzte, baldin eta hondakin horiek bereizita kudeatu behar badira duten arriskua dela-eta, beren birziklatzea errazteko edo hondakinak berrerabiltzeko prestatzeko.*

4. *Ingurumenaren alorreko agintaritzek, beren eskumenen barruan, beharrezko neurriak hartuko dituzte hondakinak balorizatu egiten direla ziurtatzeko. Balorizazioa erraztu edo hobetzeko beharrezkoa denean, hondakinak bereizita bilduko dira eta ez dira bestelako hondakinekin edo ezaugarri desberdinak dituzten materialekin nahastuko.*

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-legediaren alorrean, ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritako araudia aipatzeaz gain, Euskadiko toki-erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoa era aipatu beharra dago. Izan ere, legezko arau horren 17. artikulua udalerriei dagozkien eskumenak ezartzen ditu, honako 17. atala barne duelarik:

17) *Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.*

Toki-erakundearen legearen 2.2 artikulua dio: *“Tokiko zerbitzu publikoak, ahal dela, udalerririk emango ditu, legimitate demokratiko zuzena duen instantzia den aldetik”*. Aurrekoa gorabehera, legeak aurreikusten du, efizientzia eta eraginkortasun arrazoiak direla eta, zerbitzu horiek



udalerriek berek eratutako beste toki-erakunde batzuek ematea edo, 3. paragrafoari jarraiki, lurralde historikoetako foru-arauen bidez araututakoaren arabera, zerbitzu horiek beste edozein toki-erakundek ematea. Edozein kasutan ere, toki-araubideari buruzko oinarritzko legedian aurreikusitako ahalmenak izango dituzte.

Halaber, toki-erakundearen legearen 93. artikulua xedatzen du: *“Toki-erakundeek berek ezinezkoa badute zerbitzuak ematea (dela bideragarritasun-arrazoiengatik, dela efizientzia- eta eraginkortasun-arrazoiengatik), ahal dela, toki-erakunde horiek partaide dituen beste toki-erakunde batek emango ditu (adibidez, koadrilak edo mankomunitateak)”*.

Bestalde, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ezartzen ditu akordioak onartzeko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa eskatzen duten kasuak. Kasu horien artean, h) letran aipatzen da: *“Beren eginkizunak edo jarduerak beste herri-administrazio batzuei eskualdatzeko, baita beste administrazio batzuek emandako eskuordetzeak zein kudeaketarako gomendioak onartzeko, legeak nahitaez ezarritakoak ez badira”*.

Aurreko guztia kontuan izanik, Alkateak, Lurraldeko Informazio Batzordearen aurretiko irizpenarekin, Udalbatzari proposatzen dio ondorengo akordioa onartzea:

AKORDIOA:

LEHENENGOA.- Aiarako Koadrilaren esku uztea hiri-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzu orokorraren barne dauden zerbitzuak, akordio honetan ezarritako baldintzen arabera:

a) ESKUORDETUTAKO ZERBITZUAK.

Orokorrean, udal-hondakinekin lotutako zerbitzuak, definizio honen barne hartuta etxebizitzetan etxeko-jardueren ondorioz sortutako etxeko hondakinak, bai eta merkatal-jardueren eta antzekoen ondorioz sortutako antzeko hondakinak ere:

1. Gainerako multzoaren bilketa.
2. Ontzi arinen multzoaren gaikako bilketa.
3. Materia organikoaren gaikako bilketa.
4. Paper eta kartoiaren gaikako bilketa edukiontzian eta atez ate dendetan.
5. Beiraren gaikako bilketa.
6. Ehungintza biltzeko zerbitzua.
7. Gaikako bilketa azoketan, herriko jaietan eta bestelako ekitaldietan.
8. Kale-garbiketarik datozen hondakinen kudeaketa.
9. Eraikuntzako obra txikietako eta etxeak konpontzetik ateratako hondakinen eta hondarren bilketa.
10. Bide publikoan abandonatutako etxeko animalien bilketa.
11. Altzari, tresna eta bestelako bilketa.
12. Bide publikoan abandonatutako ibilgailuen bilketa.
13. Etxeetako landare-olio erabiliaren bilketa.
14. Bide publikoan eta helburu hauetarako gaitutako bestelako puntuetan instalatutako ekoguneetara eramandako pilen, CDen eta antzeko hondakinen bilketa.
15. Transferentzia-estazioaren kudeaketa.
16. Laudion kokatutako garbigunearen kudeaketa.
17. Ekarpentzen eta edukiontzien garbiketaz-zerbitzuak.
18. Lurpeko edukiontzien garraio-zerbitzua.
19. Eta, orokorrean, sektorea arautzen duen legediaren arabera udalei dagozkien hondakinen bilketa-, garraio- eta biltegi-zerbitzu guztiak, betiere akordio honetan berriazko salbuespen gisa aipatzen ez badira.



b) ESKUORDETZAN EMANDAKO AHALMENAK

Aiarako Koadrilari eskuordetzan ematen zaizkio akordio honen a) atalean aipatutako oinarrizko zerbitzuak eta zerbitzu gehigarriak eman eta kudeatzeko beharrezkoak diren eskumen eta ahalmen guztiak, barne hartuta, edozein kasutan ere, bilketa, garraioa eta ondorengo tratamendua. Aurrekoaz gain, eta kontuan hartuta Aiarako Koadrila toki-erakundea dela toki erakundearen legearen 2.d) artikuluan emandako definizioaren arabera, Aiarako Koadrilak nortasun juridikoa izango du eta bere xedeak betetzeko erabateko gaitasuna, barne hartuta artikuluko honetan aipatutako eskuordetzeak.

Zehazki, eta zerbitzu honen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, honako ahalmenak eskuordetuko dira:

- a) Eskuordetzearen barne hartutako zerbitzuen prebentzio- eta kudeaketa-programak prestatzea.
- b) Zerbitzuak emateko arauak ezartzea.
- c) Zerbitzuak ematea zerbitzu horiek emateko edozein kudeaketa-modu erabiliz, zuzena nahiz zeharkakoa, administrazioko kontratazioari buruzko legedian aurreikusitako modalitateen bidez. Aurrekoa gorabehera, ez da eskuordetze honen barne egongo erakunde edo sozietate instrumentalen sorrera.
- d) Artziniegako udalerraren ordezkari eskuordetutako zerbitzuen kudeaketaren alorrean, edozein erakunde publiko edo pribaturen aurrean (beste erakunde batzuekin mantendutako harremanak, diru-laguntzen eskaera, etab.).
- e) Ezarritako xedeak betetzeko beharrezkoak diren eskuratzeak eta finantza-eragiketa guztiak burutzea.
- f) Eskuordetutako zerbitzuekin lotutako komunikazioa, sentsibilizazioa eta analisisia.

BIGARRENA.- Xedapen-tarteki honen lehenengo atalean deskribatutako eskuordetzea epe-mugarik gabe burutuko da, zerbitzua Artziniegako Udalera itzultzera behartzen duen ustekabeko egoera ezohikoren bat gertatu ezean, edo bestelako ezohiko egoerak agertu ezean.

HIRUGARRENA.- Hondakinen bilketa-zerbitzuan barne hartutako eta eskuordetutako zerbitzuen finantzaketa ondorengo moduan gauzatuko da:

- Artziniegako Udalaren ekarpen arruntak: aldi behingo ekarpen arruntak xedea izango da zerbitzuaren oinarrizko egitura mantentzea (gastu orokorrak, langileak, egoitza, etab.), eta baita zerbitzua ematearekin lotutako gastuak ere (bilketa, garraioa, hondakinen ezabaketa, etab.). Banaketa-irizpidea Koadrilak kudeatutako hondakin-tona bakoitzeko adieraziko da.

Irizpide orokor hau aldatu egin ahalko da, Koadrilak dagokion akordioa adosten badu. Edozein kasutan ere, eta akordio hori hartu aurretik, behar bezala arrazoitutako txosten bat prestatu beharko da proposatutako aldaketa justifikatuz, eta Artziniegako Udalari alegazioak egiteko epe bat emango zaio.

- Artziniegako Udalaren ezohiko ekarpenak: ekarpen hauek eskatuko dira ekarpen arruntak nahikoa ez direnean zerbitzua ematek eratorritako gastuak ordaintzeko edo inbertsioak egiteko beharra dagoenean. Kasu horretan, alegazio-epe bat emango zaio Udalari, Koadrilaren Batzordeak dagokion akordioa hartu aurretik.

Koadrilaren aldeko ekarpenen diru-sarrerak, arruntak nahiz ezohikoak, Koadrilak adostutako epeetan egingo dira.



Diru-sarrera horiek ez egitekotan, Koadrilak eskubidea izango du ordaintzeko errekerimenduari ekiteko. Honelako kasu batean, Udalari hilabete bateko epea emango zaio dagokion diru-sarrera burutzeko eta/edo alegazioak aurkezteko. Alegazioak, aurkeztu badira, ebatzi ondoren eta ordainketa egiteko beharra ezarri bada, baina ordainketa burutu ez bada, Koadrilaren Batzordeak egokitzat jotzen duena adostu ahalko du zordundutako zenbatekoa jasotzeko. Egoera honek iraungo balu, zerbitzua bertan behera utzi ahalko da udalerrian edo Udalarekiko banantze-espeditentea abian jarri ahalko da.

LAUGARRENA.- Artziniegako Udalak urtero onartuko ditu bere ordenantza fiskalak, hiri-hondakin solidoen bilketa-zerbitzua emateko tasa barne hartuta, eta tasa hori biltzeari ekingo dio.

BOSGARRENA.- Akordio hau Aiarako Koadrilari jakinaraztea”.

Alkatea: hau da akordioaren testua. Zer edo zer esan nahi baduzue...

Arkaitz San Jose: bai, nik zer edo zer esan nahi dut. Bai formaren eta bai edukiaren aldetik. Formari dagokionez, eta ez da osoko bilkuraren proposamen bakarria informazio-batzordearen irizpenarekin datorrena, ez da adierazten irizpena zein zentzutan eman den, aldekoa edo kontrakoa den, eta batzordeko botoen zentzua ere ez da adierazten. Eta beno, nire ustez, nahiko argigarria izaten da, gutxienez niri gustatuko litzaidake hori jasota egotea. Hau da, hemen dio: “aurreko guztia kontuan izanik, Alkateak, osoko bilkuraren aferetarako Informazio Batzordearen aurretiko irizpenarekin”, beno, ez dakit osoko bilkuraren aferetarakoa den edo Lurraldekoa den, niri gustatuko litzaidake jartzea “aldeko irizpenarekin”, honakoen aldeko botoarekin..., ahal bada eta gehiegi eskatzea ez bada...

Ados, hori formari dagokionez. Eta edukiari dagokionez, nik, beno, Iñigok ezagutzen du nire iritzia Koadrilaren Ingurumen Batzordearen kide gisa, batez ere, gainera, hondakinen inguruko gaiak jorratzen ditugulako ia eskusiban, eta beno, bakarrik osoko bilkurari jakinarazi nahi diot Koadrilaren Ingurumen Batzordean dagoeneko adierazi dudana, izan ere, noski, kudeaketa-gomendio hau egin da egungo hondakin-bilketa zerbitzua iraungitzeaz dagoelako, eta berriro ere esleitu nahi da, edo gutxienez hurrengo hamar urteetarako lehiaketa antolatu nahi da, eta beno, batzorde horretan, gutxi gorabehera zerbitzu hau emateko formatua eztabaidatu den tokia izanik, ba adierazi egin da aukera ona dela hausnarketa egiteko hondakinak biltzeko dugun moduaren inguruan. Argi dago, eta ez dugu inongo zalantzarik, Artziniegako Udalarentzat, ez dut esango ezinezkoa, baina oso zaila izango litekeela zerbitzu hau bere kabuz ematea eta zerbitzu honen erantzukizun guztia hartzea, beraz, ulertzen dugu elkarlanean eraman behar dela, baina, egia da ere zerbitzua luzatu nahi dela orain arte eman den bezala, ia aldaketarik gabe. Eta egia da 2006an orain egitear gaudenaren antzeko zerbitzu egin zela, hau da, hemen adierazitakoaren arabera, hau da, Koadrilaren esku uztea Artziniegako bilketa-zerbitzua, baina egia da egoera dezente aldatu dela eta gerta liteke garai horretan baliozkoak ziren ereduak orain baliozkoak ez izatea. Batez ere multzo organikoaz ari naiz. Han dagoeneko adierazi dut eta horregatik adierazi nahi dut hemen ere, nire ustez oso aukera ona izan liteke Artziniegarentzat eta Koadrilarentzat nahi dugun ereduaren inguruko hausnarketa egiteko, batez ere kontuan hartuta konpromisoa hartu dugula 2020 urterako materia organikoaren %80 gaika bilduko dela, eta beno, laugarren edukiontzia, edukiontzi marroi gisa ezagutzen duguna, ez dela espero zen bilketa-mailara iristen ari. Kontuan hartuta 4 urte direla eta orain arte bezala jarraitzea proposatu dela, ba beno, zalantza asko ditugu honen eraginkortasunari buruz. Ez dakit zergatik eztabaida hau Koadrilan soilik izaten den. Hau da, nik uste dut nahiko eztabaida garrantzitsua dela eta agian guztiok parte hartu beharko genukeela, Koadrilari egin behar dena erabakitzen utzi beharrean. Baina beno, badihudi baietz, mundu guztiak arrazoizkotzat jotzen duela, baina denbora estua omen da, bestela ez dut ulertzen, dagoeneko atera dira agiri batzuk, Koadrilaren aurrean aurkeztu dira eta gainera oraingo bilketa-eredua mantentzea erabaki da eta beno, aurrera doa. Orduan udalei eskatzen zaie ekainean, edo bestela ikasturtea hasi aurretik, onar ditzaten Koadrilari egin beharreko eskumen-eskuordetze horiek. Dagoeneko esan dudana bezala, hemen ere adierazten dut gauza bera eta, beno, nik bakarrik gainontzekoei luzatu nahi nien hausnartzeko gonbidapena, kudeaketa-gomendio hau onartzean zer onartzen ari garen pentsatzeko. Gainera, dezente harritu nauen



gauza bat izan da Koadrila hurrengo 10 urtetarako kontratazioaz hitz egiten ari dela, gogora ezazue esan dizuedala 2020rako multzo organikoaren bilketaren %80 gaika egin behar dela, hau da, 4 urte barru kontratu horren barne gaude oraindik, eta ez dut ulertzen zergatik gu, Artziniegako Udal gisa, ari garen onartzen mugarik gabeko epe baterako kontzesioa, hori baita Josebak, barkatu, Iñigok irakurritako idazkian esaten dena. Orduan, beno, hori nabarmendu nahi nuen soilik. Eta beno, gauza gehiago nituen, baina, printzipioz, hori zen komentatu nahi nuena. Eta orduan, honen arabera bozkatuko dugula, noski.

Alkatea: beno, eskerrik asko, Arkaitz. Zuk behin eta berriz adierazi duzu zure iritzia Informazio Batzordean, hemen, Koadrilan, ni ez nago batzordean baina baita ere...

Arkaitz San Jose Martínez: baina beno, Alkate gisa etortzen zara.

Alkatea: bai, joaten naiz, baina zuk ere esan duzu. Zuk esan duzun bezala, zerbitzua elkarlanean eman beharra dago eta, beraz, zu proposatzen ari zaren eztabaida hau zerbitzua ematen duten udalari guztietan planteatu behar da, eta beraz, Koadrila izan daiteke eztabaida hori jorratzeko toki egokia. Zerbitzu hau ematen da...

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit Koadrilan zer eztabaidatzen den eta, beraz, ez nahiz momentu honetan gai sentitzen planteamendua zein den ezagutzen ez dudalako. Nik dakidana da Artziniegako Udalean hitz egin dena, eta Artziniegako Udalaren beharrak zeintzuk diren, eta ez dira Aiarako Koadrilaren gainerako udalen behar berak. Bakoitzak bilketa ia erabat desberdina dugu. Erabat harrituta geratu naiz kontratua epe-mugarik gabekoa dela jakitean. Koadrilari kontratuan gaitasuna ematea Udalari ordainketa exijitzeko eta kontratuan ez jasotzea Udalak ere izango duela, modu bateratuan, Koadrilari zerbitzua mugatzeko ahalmena. Nire ustez horrek jasota egon behar du ere.

Alkatea: beno, kudeaketa-gomendioa bada, Udalak ondoren eskumena berreskuratu ahalko du ere.

Joseba Elejalde Ribacoba: azkenean, Udalak edo Koadrilak badu, alde bakarretik, kontratua indargabe uzteko eskubidea, enpresaren zerbitzua. Baina Udalak, aldiz, ez da esaten kontratuan zerbitzua, alde bakarretik, bertan behera uzteko eskubidea duenik.

Alkatea: baina egin ahalko du.

Joseba Vivanco Retes: apur bat azaldu nahi dut ere nola bozkatuko dugun. Bi zinegotzik aldeko botoa emango dugu eta bi abstenituko gara azaldutako jarreraren oinarrituta, Arkaitzek azaldu duen moduan. Zentzu horretan, eztabaida sakondu beharko litzateke, ziurrenik Koadrilan, baina baita udaletan ere, eta Koadrilak gehiago sakondu beharko luke egingo denaren inguruan, zabor-bilketa dinamika berekin jarraitu beharrean eta, bestalde, bereziki nabarmendu nahi dugu egia dela, eta guztiok dakigu, zabor-bilketa zerbitzuaren inguruko kexak jasotzen ari direla, batez ere auzoetako kexak, periferiako nukleoetan, egiten ari diren akatsengatik, bilketarik-eza edo arazoengatik. Horregatik, nik uste onuragarria izango litzatekeela, Koadrilari zaborren kudeaketa emateko egingo den kontratu berri honi begira, guk, Udal gisa, dagokion batzordean egin dezagun, zeren eta dagoeneko eginga izan behar genuen, gaurko egunera iritsi aurretik, analisi bat, balantze bat, Artziniegan zabor-bilketa nola funtzionatzen ari den aztertzeke, egiten ari diren akatsak ezagutzeko, gertatu diren arazoak, izan ere, ehungintza edo olio edo organikoa edo beste edozer jasotzeaz aparte, argi eta garbi baitugu akatsak egiten ari direla, kexak daudelako. Hau da, egiten ari diren akatsen analisi bat egitea, gauzak aldatu behar ote diren aztertzea eta, baita ere, planteamendu hori mantentzea datorren hamar urteetan izango dugunaren inguruan. Seguruenik guztion errua izango zen analisi hori alde aurretik egin ez izana, honetara iritsi aurretik, baina nik uste garaiz gabiltzala, guzti honek dakartzan prozesuak direla eta, esertzeko eta esateko, beno, ados, guzti hau dugu, gaia ongi ezagutzen duten pertsonekin batera, zein akats egiten ari dira, zein arazo gertatzen ari dira, eta horiek berriro ez errepikatzeke. Beraz, nik uste hori kontuan hartu beharko litzatekeela ere.

Alkatea: hori, jakina, ados nago zurekin, baina egunero egiten dugu hori, arazo bat antzematen dugunean, ba beno, arazoaren jatorria aztertzen dugu eta zuzentzen saiatzen gara. Eser gaitzek eta zerbitzuari buruz hausnartu, nola ematen ari den aztertu, baina argi dago egunero ematen den zerbitzua dela eta, arazoak agertzen direnean, arazo puntualak nahiz orokorrak izan, arazo horiei irtenbidea ematen saiatzen gara.



Joseba Vivanco Retes: gauza da gai puntualak konpontzen ez baditugu, ez dakit zein tokitan bi astetan zehar ez dakit zer jaso ez dela, edo ez dakit zer eta ez dakit zenbat, azkenean egiturazko arazoak izango direla, eta beno, enpresa hor dago eta guztiok badakigu nola funtzionatzen duen. Gainera kontratu bat esleitzera goaz, hamar urteko kontratua alegia, ez da gauza txikia, beraz...

Alkatea: bai, baina berriz ere diot arazoak egunerokoak direla, eta arazoei erantzuna ematen saiatzen garela. Beno ba, orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (2);

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (2);

Onartuta geratu da.

3. Central Forestal-ekin izenpetutako baso-ustiapena besterentzeko kontratuaren luzapena

Alkatea: beno, badakizue baso-ustiapenerako esleipen bat dugula. Central Forestal-i esleitu zitzaion 2013. urtean. Ustiapen honek epe jakin bat zuen mozqueta burutzeko eta, beno, epea amaitu egin da, baina mozqueta ez da bukatu oraindik, orduan egokitzat jo da epea luzatzea ustiapena burutu ahal izateko, egurra moztu eta ateratzeko kontraturako. Gero, bestalde, kontratuaren barruan aurreikusi egin zen enbor lodia ateratzeko aukera. Orduan ez zegoen lizitazio-preziorik horretarako, baina enbor lodia atera da, Aldundiari balorazioa eskatu zaio enbor lodi horrentzat eta 20€/estereoko prezioan baloratu zuen. Orduan, osoko bilkuraren eskumena izanik, proposatzen dena da ustiapen-kontratuaren esleipena luzatzea urriaren 31ra bitartean eta, ondoren, enbor lodia prezioa baloratzea.

“2016KO ABUZTUAREN 24EAN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: Ondasunak besterentzeko kontratuaren luzapena (2011-2012 baso-ustiapeneko 1. eta 2. loteak).

Ikusirik, 2011-2012 baso-ustiapenak besterentzeko espedientea aztertu ondoren, Central Forestal, S.A. enpresarekin 2014ko martxoaren 20an izenpetutako kontratuan zehaztu zena.

IKUSIRIK, jarraitutako prozedura honakoa izan dela:

- 2013ko irailaren 24an burututako Tokiko Gobernu Batzarraren saioan, aho batez onartu zen baldintza ekonomikoen agiria 2011-2012 planean barne hartutako baso-ustiapenen loteak enkante bidez saltzeko.

- 2013ko urriaren 28ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) lizitazio-iragarkia argitaratu zen.

- Azaroaren 28an, kontratazio-mahaia bi loteak Central Forestal enpresari esleitzea proposatu zuen.



- 2013ko abenduaren 12an, Central Forestal enpresak fidantza gordailutu zuen 2.000 euroko Banco Popular bankuko abal bidez.

- Udalbatzaren osoko bilkurak, 2013ko abenduaren 19an burututako ezohiko bileran, ondorengo loteak esleitu zizkion CENTRAL FORESTAL, S.A. enpresari:

1. lotea. Insignis pinuaren ustiapena (96,33 ha) Ezkeberro-Valverde zonaldean. Erabilera publikoko basoa. 7:

Enborkiak	3,57€/estereoa + BEZ
Enborrak	11,52 €/estereoa + BEZ

- 2. lotea. Insignis pinuaren ustiapena (85,32 ha) El Acebal zonaldean. Erabilera publikoko basoa. 10:

Enborkiak	4,57 €/estereoa + BEZ
Enborrak	12,57 €/estereoa + BEZ

Aipatu kontratuan, hirugarren klausulan, ezarri zen lanak amaitzeko epea: 1. lotea 2015eko urriaren 31n eta 2. lotea 2014ko urriaren 31n.

KONTUAN HARTUZ gaur egun ez direla amaitu egur guztia moztu eta ateratzeko lanak, egokia da kontratuaren indarraldia luzatzea.

KONTUAN HARTUZ baso-ustiapena dela kontratu pribatua eta ondare-legediaren bidez arautzen dela.

IKUSIRIK Central Forestal enpresarekin izenpetutako kontratuan ezarri zela egurraren diametroa egurra sailkatzeko eta prezioa ezartzeko, enborkiak 7 eta 17 cm bitarteko diametro artean sailkatuz eta enborrak 18 eta 28 cm bitarteko diametro artean.

KONTUAN HARTUZ egurra ateratzean 28 cm-tik gorako egurra aurkitu dela, Central Forestal enpresak, 30 cm-ko diametrotik gora, enbor lodi gisa sailkatu duena.

KONTUAN HARTUZ pasa den 2016ko maiatzaren 26an, Mendi Saitetik, Udalak hala eskatuta, 30 cm-ko edo hortik gorako diametroko egurraren balorazioa bidali zela, alegia: 20 euro/estereoa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera, *azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak* onartu zuena, osoko bilkurari dagokio, kontratuaren zenbatekoaren arabera, honakoa onartzea:

AKORDIOA:

LEHENENGOA.- CENTRAL FORESTAL, S.A. enpresari ematea 1. loteko egurra moztu eta ateratzeko kontratua erabat gauzatzeko luzapena datorren **2016ko urriaren 31ra arte**.

BIGARRENA.- Central Forestal, S.A.-ri esleitzea 1. eta 2. loteetan ateratako 30 zentimetrotik gorako diametroa duen egurra, 20 euro/estereoa prezioan.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Central Forestal enpresari jakinaraztea”.



Alkatea: zer edo zer aipatu nahi baduzue.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik jakin nahi dut zenbat metro kubiko, estereo, moztu diren eta zenbat izango den hori Udalarentzat. Ustez, mozketa markatu egiten da, moztu behar diren pinuak alegia. Nik ez dakit arazoa den hemen ez dagoela pertsona bat mendien arloa eramateko, zinegotzi bat, nahiz eta basozainak bere lana ongi egin eta osoko bilkura honi edo Udalari jakinarazi enpresak menditik atera dituela kontratuan jasota ez zegoen egurraren hainbat metro kubiko. Eta gustatuko litzaidake guzti hau batzorde batek eramatea eta beharrezko azalpenak eska daitezen eta, etorkizunean, pertsona bat egotea mendien gaiaz arduratzeko, garrantzitsua baita, Udalari diru gehien ematen dion gauzetako bat da, dugun aktibo ekonomiko handienetako bat, eta kontrolatu behar dugu. Eta gustatuko litzaidake planteatu ditudan galderei erantzuna jasotzea.

Alkatea: Lurraldeko Batzordean jorratu genuen, zu ez zinen egon, gaixorik zeundelako, baina beno, han komentatu genuen. Atera diren estereo kopuruaren datuak ez ditut. Kontrolik egon ote den? Bai, kontrola egon da. Lehendik neurtuta ez zegoela? Ba ez zegoen neurtuta, aurretiko esleipenik ez zegoelako. Hau bakanketa bat da, ez? Ez da arraseko mozketa. Orduan, atera diren estereoei buruzko datuak, guk ditugunak, espedientearen albaranean daude eta, beno, horiek jaso ditzakezu.

Ascensión Hormazabal Meabe: gauza da esleipena ondoriozkoa izan dela.

Alkatea: esan duzun hori, nahi dutena egiten dutela, ba ez da horrela, kontrol bat eramaten ari da eta egurra egiaztatzen ari da, eta guk hemen ditugu albaranak.

Joseba Vivanco Retes: nik soilik esan nahi dut, beno, Josebak esan duena aprobetxatuz, berarekin ados nagoela esan duen lehenengo gauzan. Nik uste dut pertsona bat behar dela, gobernuko taldekoa, Udalekoa, lehen mendietarako zinegotzi bat zegoen moduan, zeren eta, Josebak dioen moduan, alor honek dirua emateaz gain, zaindu, mantendu eta ernaberritu behar dugun alorra da, eta guk uste dugu onuragarria izango litzatekeela pertsona bat, zinegotzi gisa, mendien gaiaz arduratzea, gertatzen denaren berri izatea eta gai honen gainean egotea. Era berean, uste dugu, eta ez dakit noizbait adierazi dugun ala ez, onuragarria izango litzatekeela hemen, Artziniegan, turismoaren alorraren ardura duen zinegotzi bat izatea. Uste dugu, oker ez banabil, mendien arlorako pasa den legegintzaldian ere ez zela arduradunik egon, hau da, orain bezala, alkatetzak bere gain hartzen zituen funtzioak zirela. Ez dakit horren aurrekoan, Agurtzaneren lehenengo legegintzaldian, nik ez dakit, zuk jakingo duzu akaso, Joselu edo Inma, ez dakit berriazko arduradun bat ba ote zen. Baina nik uste dut onuragarria izango litzatekeela, lehen zegoen moduan, arduradun bat izatea, agian ongi egingo zuen, agian gaizki, agian kritikak jasoko zituen edo edonola ere, baina ardura hori duen pertsona bat, informazioa duena. Zeren eta nik uste dut, azken finean, Josebak dioen moduan, denbora asko daramagula mendien gaia alde batera uzten, Udalarekin inolako zerikusirik izango ez balu bezala. Ez dakit lehen ere ez ote ziren egiten bisitaldi horiek, mugarrietara ibilbideak, muga guztiak non zeuden jakiteko, gauza guztiak non zeuden. Gauza horiek, nik dakidala behintzat, aurreko legegintzaldian, ez ziren inoiz egin, hau da, mendiko zonaldeetara joaten zen, Aldundiko jendea etortzen zen bestalde, baina nik ez dakit lehenago zinegotziak joaten ziren mendia ikustera, mugak non zeuden jakiteko eta zer egingo zen jakiteko. Ni ez naiz inoiz joan, ez zaigu inoiz deitu horrelako zerbait egiteko, orduan, nire ustez, Josebarekin ados nago, garrantzitsua da alor honi itzultzea behar duen garrantzia, bestalde batzordeetako txostenak eta abar izateaz gain, jakin ahal izateko zonaldeak zeintzuk diren, zer aterako den, eta abar, baina edozein kasutan gai honetaz arduratzen den pertsona bat izatea.

Alkatea: ni erregulartasunez biltzen naiz basozainarekin, Aldundiko basozainarekin, eta bera da jakinarazten diguna mendiaren egoera zein den. Zinegotzi bat egon daiteke, baina beno, momentu honetan ni ari naiz funtzio horiek burutzen, alkatetzatik, Aldundiko zerbitzuarekin koordinatuta, eta horrez gain, jakina, udaleko langileak, obretako langileak, haiek ere betetzen dituzte funtzio hauek, ahal duten heinean.

Joseba Elejalde Ribacoba: Josebak esan duena, aurreko legegintzaldian Llanteno eta Aiarako mugarrietara bisita egitea, nik pertsonalki egin nuen, Udalaren ordezkari eta zinegotzi gisa, uste baitut garai hartan mendira igo eta basozainen erritmoa aguantatzeko prest zegoen bakarra nintzela, basozainen atzetik ibiltzeko arriskua ekiditeko. Baina beharrezkoa da behar bezala



gobernuak izendatutako edo adostutako pertsona bat izatea, Artziniegako herritarren interesak babesten dituena. Ni ibili naiz Gordejuela eta Llantenoako mugarrietan, nire kabuz, eskatu egin didatelako.

Inmaculada Vivanco Retes: honen ildotik, uste dut, pasa den legegintzaldian, mugarrietara egindako bisitaldi horretan, eta zehazki Llantenoakoan, ez dakit Batzordean edo Gobernu Batzordean ez ote zen komentatu bisita egingo zela, egun horretan alkatetzak ezin zuen, baina nik uste komentatu zela. Zu libre zeunden eta esan zenuen Udalaren izenean joango zinela.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik egingo dut eta egiteko konpromisoa hartu nuen. Interesak defendatzen saiatzen naiz...

Inmaculada Vivanco Retes: baietz, baietz, baina zure izenean joan zinen, ez Artziniegako Udaleko zinegotzi gisa eta Artziniegako Udalaren izenean, baizik eta ahal zenuelako eta momentu hartan libre zeundelako.

Joseba Elejalde Ribacoba: momentu hartan beste inork ezin zuen.

Inmaculada Vivanco Retes: nik ezin nuen, baina egon izan naiz. Noizbait egon izan naiz, Aldundiko langileekin bisitaren bat egiten. Eta badakit, pasa den legegintzaldian, alkatetzak goitik behera ibili dituela Artziniegako mendiak Aldundiko langileekin, basozainarekin eta Udaleko langileekin. Eta ez da zertan egon behar, zinegotzi bat egon daiteke mendien ardura duena, baina funtzio hori alkatetzari egotzi zaio, alkatetza baita denbora gehien duena ardura hori hartzeko, beraz, ez da zertan izan behar ardura hori duen zinegotzirik, alkatetzaz gain.

Alkatea: orain arte egiten ari garen moduan eta behar bezala babesten ari gara herritarren interesak. Badirudi ez ditugula babesten.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut esaten babesten ez dituzuenik. Aurkeztu berri duzun hori, aurkeztu duzuen da Central Forestal enpresarekin genuen kontratuan egin direla hainbat mozketak kontratuan aurreikusita ez zeudenak. Eta arreta deitzeari dagokionez, bakanketa bat bada, markatuta egongo zen, eta markatuta badago, ez dute zergatik moztu behar moztu behar ez den egurra, hau da 18 edo 20 cm-koa. Ez? Horretarako dago basozaina, bere lana ongi egin duena, ongi egin du bere lana, baina Udaleko arduradun bat izan behar dugu interesak babesteko. Nire ustez.

Alkatea: eta kasu honetan babestu dira, dagoeneko esan dizut datuak ez ditugula hemen, baina espedientera joan zaitezke, egiazta ditzakezu albaranak eta egiazta dezakezu mendietatik atera den egur-estereo kopurua. Bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Bat ere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4. Mugarriak jartzeko prozedura abian jartzea, Santa Koloman jabari publikoko ondasunak ofizioz berreskuratzeko.

“2016KO ABUZTUAREN 24EAN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: Mugarriak jartzeko prozedura abian jartzea, Santa Koloman jabari publikoko ondasunak ofizioz berreskuratzeko.



Ikusirik 2015eko urriaren 8an, osoko bilkuran, hartutako akordioa, Santa Koloman jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko eskaerari dagokiona eta honakoa dioena:

LEHENENGOA.- Ofizioz berreskuratzea 66 m²-ko azalera duen bide publikoa, Santa Kolomako udalerrian kokatua, Artziniegako 4. poligonoaren 788. katastro-partzelari dagokiona, aldamenetako titularrek inolako okupaziorik gabeko bide publiko libre gisa utzi beharko dutena. Akordio hau Arabako Foru Aldundiko Katastroko Zerbitzuari jakinaraziko zaio, adierazpen honi dagokion zuzenketa egin dezan.

BIGARRENA.- Arabako Foru Aldundiari laguntza teknikoa eskatzea mugarriak jartzeko, Santa Kolomako bide publikoaren mugak ezartze aldera, Artziniegako 4. poligonoko 738 A; 38 B; 737 A 26 B eta 49 A partzelak gurutzatzean, prozedura honetan aurkeztutako eskrituren eta katastro-datuaren arabera; bai eta 26 A partzelaren azalera asfaltatua ere, eraikinen arteko espazio librearen zabalerarekin bat datorrena, 788 partzelaren jarraipen gisan, udal teknikariak bere 2015eko abuztuaren 3ko txostenean aipatutako moduan.

HIRUGARRENA.- 736 A katastro-partzelari dagokion jabari publikoko lurraren erabilera berreskuratzeko eskaera ezestea, Teodoro Vicente Agirre Canive jaunaren titulartasunekotzat jo baita Amurrioko Lehen Auzialdiko eta instrukzioko 1. Epaitegiaren 2014ko urriaren 6ko 62/14 Epaiaeren arabera.

LAUGARRENA.- Akordio hau interesdun guztiei jakinaraztea, interesdunei adieraziz lehenengo eta bigarren ataletan adostutakoaren aurka aukera izango dela Udal honen aurrean berraztertze errekurtsua jartzeko, hilabete bateko epean, edo aldiz, jakinarazpenetik bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko aukera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean.

Ikusirik Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendariaren 2016ko ekainaren 14ko komunikazioa, non, gorago aipatutako osoko bilkuraren akordioari buruz, honako oharrak adierazi ziren:

1. *Pertsona interesdunek eta jakinarazpena jaso zuten pertsonak ez zuten akordio honen aurkako errekurtsorik aurkeztu eta, beraz, ebazpen irmoa da.*
2. *Artziniegako Alkateak, Arabako Foru Aldundian 2016ko martxoaren 8an sarrera eman zitzaion idazki bidez, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari jakinarazi zion Santa Kolomako bide publikoaren mugak ezartzeko mugarriak jartzeko lanetarako laguntza teknikoa eskatzen zela, Artziniegako 4. poligonoko 738 A; 38 B; 737 A; 26 B eta 49 A partzeletan eta 26 A partzelaren azalera asfaltatuan.*
3. *Artziniegako Udalak jabaria berreskuratzeko espediente bat prestatu du 4. poligonoko 788 partzelari dagokionez eta azalera hori, gaurko egunez, dagoeneko gehitu zaio bide publikoari.*

Ikusirik, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendariaren komunikazioan adierazten dela, Artziniegako Udalak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zerikusia duten administrazioen arteko beharrezko bilerak burutu ondoren eta Santa Kolomako udalerrian "in situ" burututako lanak amaituta, Zerbitzu horrek uste duela dagokion jabetzen mugarriak ezartzeko prozedura izapidetu behar dela, ahal den neurrian 2015eko urriko udal-akordioan aipatutako partzelak mugatze aldera eta, prozedura-esparru honen barruan, Foru Zerbitzuak beharrezkoa den laguntza teknikoa eskaintzen duela.



Ikusirik Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onetsi zuen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera burututako memoria, non adierazten den nahasmen fisikoa dagoela udal jabetza horren mugei dagokienez.

Ikusirik Santa Kolomako bidean mugarriak jartzea egokitzen jo dela, 2015eko urriaren 8an osoko bilkuraren akordioan adierazitako partzei dagokienez, Udal honek duen ahalmenaren arabera, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 56. artikuluan toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 82 b) artikuluari dagokienez xedatutakoari jarraiki. Aipatu 56. artikulua xedatzen du: *“Udalbatzek beren jabetzakoak diren ondasunetan mugarriak jartzea sustatu eta exekutatzeko ahalmena izango dute, bai eta partikularren jabetzetan ere, baldin eta horien mugak zehaztugabeak badira edo usurpazio-zantzuak badira”*.

KONTUAN HARTUZ.- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 56-59 artikuluetan xedatutakoa.

KONTUAN HARTUZ.- Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21., 22. artikuluetan eta horiekin lotutakoetan xedatutakoa.

Udalbatza honek, osoko bilkuran, 2016ko irailaren 1ean, aho batez

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Santa Kolomako bide publikoaren mugarriak ezartzeko administrazio-espeditentea abian jartzea, Artziniegako 4. poligonoko 738 A; 38 B; 737 A; 26 A; 26 B eta 49 A partzeletan.

Bigarrena.- Finka-neurketa lanen hasierako data gisa ezartzea 2016ko abenduaren 10a, bidearen zati horretan.

Finka-neurketa lan horiek, goizeko 10etan hasiko dira, Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoen zuzendaritzapean eta alkate jaunaren, udal-alderdietako ordezkarien eta idazkariaren presentziarekin.

Hirugarrena.- Akordio hau lursail publikoaren aldameneko jabeei jakinaraztea eta espeditentea publiko egitea argitalpen bidez, finka-neurketa lanak hasteko jarritako data baino 60 egun baliodun lehenago, ALHAOan eta probintzian hedapen gehien duten egunkarietako batean, bai eta Udaleko iragarki-oholean.

Espeditentearen informazio publikoko epean zehar, espeditentea interesdunen eskura jarriko da Artziniegako Udaletxeko bulegoetan.

Laugarrena.- Interesa duten guztiei jakinaraztea udaletxeko bulegoetan aurkeztu ahalko direla beren eskubideen frogara eta babeserako diren alegazio eta dokumentu guztiak, finka-neurketa lanak hasi aurreko hogeitau egunetan zehar. Epe hori amaituta, ezingo da dokumentu edo alegaziorik aurkeztu.

Udalak behar dena adostuko du dokumentu eta frogara horien inguruan, aurkezpen-epea amaitu eta mugarriak jartzeko epea hasteko aurreko egunera bitartean, eta adostutakoa behar bezala jakinaraziko die interesdunei.

Bosgarrena.- Ezarritako datan, ezarritako tokira bertaratuko dira zerbitzu teknikoak eta modu zehatzean ezarritako bide publikoaren mugak, adierazitako zatietan, eta dagokion planoan prestatuko dute, alkatearen eta udal-idazkariaren aurrean. Udal-idazkariak dagokion akta



prestatuko du, bertan adieraziz ondasunen araudiaren 64. artikuluan aipatutako erreferentzia guztiak, eta bertaratutako guztiak sinatuko dute akta.

Ondoren, osoko bilkuran onartuko da mugaketa ebazten duen akordioa, akordio exekutiboa izango dena eta administrazioarekiko auzibidetik aurkaratu ahalko dena.

Mugaketa onartzen duen akordioa irmoa denean, mugarriak jartzeari ekingo zaio interesdunen parte-hartzearekin.

Seigarrena.- Erabaki honen aurka, izapide soila izanik, ezingo da inolako errekurtsorik jarri, egokitzat jotzen diren ekintzak kaltetu gabe”.

Alkatea: hau da akordioaren proposamenerako testua. Zerbait esan nahi baduzue. Orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Bat ere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5. 2016ko Kontu Orokorra onartzea.

Alkatea: Kontu Orokorra dagoeneko onartu zuen Kontuen Batzorde Bereziak. Aldizkari ofizialean argitaratu zen, ez da alegaziorik egon eta, ondorioz, orain osoko bilkurari dagokio akordioa onartzea. Jarraian, akordioa irakurriko dut.

“AKORDIO PROIEKTUA

Erakunde honen 2015 ekitaldirako Kontu Orokorra aztertu ondoren, Udalbatza honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere txostena egin ondoren eta Kontu Orokorra publikoaren eskura jarri ondoren, 2016ko ekainaren 8ko 65. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez, erreklamaziorik, arazorik edo oharrik jaso gabe, honakoa proposatzen da:

Lehenengoa. Udalaren 2015 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena. Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, hala xedatzen baitu Toki Erakundeen Ondasunen Araudiak, 31. artikuluan”.

Alkatea: zerbait esan nahi baduzue. Bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).



Aldeko botoak:
Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4);

Onartuta geratu da.

6. Kreditua gaitzeko 5/2016 espedientearen onartzea.

Alkatea: espediente horrek proposatzen du hiru partida berri sartzea gastuen aurrekontuan, gainbalioetik eratorritako diru-sarrera handiagoekin finantzatzeko direnak. Gastu-partiden xedea da: Barcena polikiroldegiko rokodromoa, hirigunean plakak ezartzea, kale-izendegian, eta Artziniegatik Bentarako Barratxiko bidea birgaitzeko eta baloratzeko proiektuaren prestaketa. Jarraian, akordioa irakurriko dut.

“AKORDIO PROIEKTUA

Ikusirik uneko 2016ko udal-aurrekontuaren gastuen egoera-orrian ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko espedientearen, 11.125,00 euroko zenbatekorako.

Kontuan hartuz, idazkari kontu-hartzaileak adierazi duenaren arabera, espedienteak bete egiten dituela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 31. artikulua ezartzen dituen baldintzak, bai eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauak xedatzen duena ere, Ogasun eta Antolaketarako Informazio Batzordeak Udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen dio onartzea ondorengo

AKORDIOA

Aipatu espedientearen eta hortik eratorritako gastu eta diru-sarreraren egoera-orrietako aldaketak onartzea, ondoren adierazitakoaren arabera:

DIRU-SARREREN EGOERA

Kreditua sortzen duten diru-sarrerak dira:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
114.00	Gainbalioa. Hiri-lursailen balioa areagotzeko zerga	11.125,00
	GUZTIRA	11.125,00

Eta, aurrekontuaren ikuspuntutik, indarrean dagoen 2016 ekitaldiko aurrekontuaren diru-sarreraren egoera-orriaren aldaketa dakarte, honako moduan:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	AREAGOTZEA	KREDITUA GUZTIRA
114.00	Gainbalioa. Hiri-lursailen balioa areagotzeko zerga	20.000,00	11.125,00	31.125,00
		20.000,00	11.125,00	31.125,00

DIRU SARREREN AREAGOTZEAREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA: 11.125,00



GASTUEN ORRIA

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
342.226.002	Barcena polikiroldegiko rokodromoa	1.050,00
150.226.001	Kale-izendegiko plakak	1.000,00
450.643.001	Barratxiko bidea (Artziniega-Benta) birgaitzeko eta baloratzeko proiektuaren prestaketa	9.075,00
	GUZTIRA	11.125,00

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKOA GUZTIRA: 11.125,00

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue? Beno ba, orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzia:

Bat ere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

7. EH-Bildu alderdiaren mozioak eta EAJ-PNV alderdiaren zuzenketa Mandela araei dagokienez.

Alkatea: aurkeztutako mozioa irakur dezakezue.

Joseba Vivanco Retes: laburpen txiki bat egingo dut.

"2015eko abenduaren 17an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak gutxienerako arau batzuk onartu zituen presoentzat tratamendurako eta "Mandela arauak" izen sinbolikoa eman zien". Honela, araubide hori sustatu duten estatuek Nelson Mandelari omenaldia egin nahi izan diote, 27 urte kartzelan eman zituen preso politikoa alegia eta ondoren Hegoafrikako presidente izan zena, bere giza eskubideen, berdintasunaren, demokraziaren eta bake-kulturaren aldeko legatua goraiatzeko xedearekin. Nazio Batuek gonbidapena luzatu dute Nelson Mandelaren nazioarteko eguna, uztailaren 18a alegia, presoentzat eskubideen aldeko Mandela eguna ere izan dadin, espetxeratze-baldintza duinak bultzatzeko eta presoak ere gizartearen parte direla adierazteko xedearekin. Horregatik, Udal honek ondorengoa erabaki du:

Lehenengoa: Mandela arauarekin bat egin du, presoentzat tratamendurako gutxienerako arauak.

Bigarrena: Mandela arauak euskal presoek aplikatzea eskatzen du, besteak beste, preso gaixoen tratamendua jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidea sakabanatzearekin bukatuz.

Hirugarrena: Errefusatu egiten da, Mandela arauetan oinarrituta, muturreko isolamendua sistematikoki erabiltzea ohiko zigor gisa, isolamendua eragin psikiko oso kaltegarriak baititu presoengan, eta egoera hori jasaten duten presoekin elkartasuna agertzen da.

Laugarrena: Nazio Batuen gomendioari jarraituz, bat egiten dugu presoentzat eskubideen aldeko Mandela egunarekin, espetxeratze-baldintza arbitrarioen aurka gaudela adieraziz eta presoak ere gizartearen parte direla aldarrikatuz."

Inmaculada Vivanco Retes: EAJ-PNV alderdiaren aldetik, alternatiba bat aurkeztu dugu, mozioaren zuzenketa bat. Jarraian irakurriko dut aurkeztu nahi duguna.



"Espetxe-politikak garrantzi handia du euskal errealitate sozio-politikoan. Behin eta berriz, euskal erakundeek alorretan sortzen diren eztabaidetan agertzen da. Gizarteko sektore handiek politika horrekiko sentsibilitatea agertzen dute eta alda dadin eskatzen dute. Gainera, espetxe-politikak eragina du hainbat errealitate zaugarrietan, esaterako, presoengan, beren familiengan eta dagozkien eskubideengan. Zentzu horretan, espetxe-sistemaren gaitasun humanizatzailearen edo deshumanizatzailearen isla da. Arrazoi hauek direla eta, espetxe-politika bizikidetzaren barne hartu behar da, are gehiago egungo testuinguruan. Espetxe-politikaren dimentsio hau ulertzeko, bi erreferentzia nagusi gogoratu behar dira. Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluan arabera, zigor askatasun-gabetzaileen helburuak izan behar du berreziketa eta gizarteratzea. Konstituzioaren azalpen honek balio bereziki egokia hartzen du ETArek indarkeriaren behin betiko etenaren testuinguruan, horrek dakarrelako honelako delituak berriro egiteko arriskua desagertzea. Testuinguru honetan, eta espetxe-politika bizikidetzaren politika baten barne sartzeko, espetxe-politika horren aplikazioa aldatu beharra dago, gaur egun salbuespen-baldintzei egokituta baitago, iraganeko aldietan ezarri baitzen, ETArek indarkeriaren iraunkortasunaren aurrean. Garai hartan jada zenbait neurri eztabaidagarriak eta eztabaidatuak ziren. Egungo testuinguruan ezinbestekoa da normaltasun-baldintzak berreskuratzea. Espetxe-politika horrek, bizikidetzaren zati gisa ulertuta, bi alderdi ditu: alde batetik, Gobernuaren, erakundearen eta espetxe-zuzendakaren esku dagoena eta, bestetik, presoek beraien eta beren elkarrekin esku dagoena. Zentzu honetan 4 maila bereiztea komeni da: lehenik eta behin, presoek esku dago banaka beren egoerari legearen arabera dagozkion hobekuntza-neurriak eskatzea, esaterako, bizitokitik gertuen dauden kartzeletara hurbiltzea, gaixotasun larriak dituzten presoak kartzelatik ateratzea edo 70 urtetik gorako presoak kartzelatik ateratzea. Neurri horiek bete egin daitezke presoari ezohiko betekizunik eskatu gabe. Modu paradoxiko eta harrigarrian, hamarkadetan zehar, presoek taldeak uko egin dio eskaera horiek egiteari. Orain, irizpidea aldatu dute eta, zorionez, eskaerak izapidetzen hasi dira. Bigarrenik, Gobernuaren esku dago espetxe-politikak inplizituki eduki behar duen xede humanizatzailea betetzea eta legean aurreikusitako presoek egoera hobetzeko neurriak normaltasunez eta tratu-berdintasunarekin aplikatzea. Honek dakar hurbiltze-prozesu bat abian jartzea eta gaixo dauden edo 70 urtetik gora dituzten presoentzat irtenbide humanitarioak ezartzea. Hirugarrenik, legean aurreikusitako gizarteratze-prozesuak abian jartzea ere indarkeriazko delituen ondorioz espetxeratutako presoek esku dago. Kasu horietan, beharrezko baldintza da biktimei eragindako kaltearen inguruko autokritikako hausnarketa egitea, kalte bidegabea gainera, biktimei giza eskubideak urratu baitzituen. Autokritika hori ez litzateke utzi behar preso bakoitzaren esku soilik. Logikoa dirudi presoek elkarrekin eta indarkeriaren erabilerari balio politikoa eman ziotenek, politikoki eta lehenik, autokritika hori egitea. Laugarrenik, Estatuari dagokio zigor askatasun-gabetzaileen gizarteratze-xedea garatzea eta gizarteratze-prozesuak bultzatzea, hartara bidea irekiz legeak, gizarteratze-prozesuak esparruan, aurreikusitako ohiko eta ezohiko espetxe-onurei. Ohar hauek eginda eta planteatzen diren aldarrikapenen aniztasuna ikusita, espetxe-politikari dagokionez, Artziniegako Udalak honako akordioa onartu du:

Lehenengoa: Espainiako Gobernuari gonbidapena luzatzea espetxe-politika bizikidetzaren politikaren parte bilaka dezan eta, ondorioz, espetxe-politika alda dezan eskatuz, salbuespen-baldintzak atzean utzita, espetxe-politika euskal erakundeekin adostuz eta espetxeen eskumena Eusko Jaurlaritzari emanez, Gernikako Estatutuaren 10.14 artikuluan xedatutakoa betez.

Bigarrena: Espetxe-erakundeek presoek hurbiltze-prozesu bat eskatzea presoek bizitokiak hurbileko kartzeletara, hala xedatzen baitu espetxe-legediak, bai eta Espetxeen Erregelamenduaren 104.4 artikulua aplikatu dezaten ere, gaixotasun larriak dituzten presoek kasuan, eta erregelamendu beraren 92. artikulua, 70 urtetik gorako presoek kasuan.

Hirugarrena: Presoek eta presoek sostengua ematen dieten elkarrekin eskatzea legean aurreikusitako gizarteratze-prozesuak garatzeko beharrezko pausoak eman ditzaten, ekimen indibidualen bidez abiarazi daitezkeen prozesuak direlako eta, delitu motaren arabera, hausnarketa arduratsu eta autokritikoa eskatzen baitute biktimei eragindako giza eskubideen urraketaren aurrean.

Laugarrena: Gure gizartean giza eskubide guztien aldeko konpromisoa sustatzea, ikuspuntu integral eta ez baztertzailer batetik, iragana, oraina eta etorkizuna kontuan hartzen dituen eta,



ondorioz, giza eskubideen urraketa guztien bidegabekeriaren aitorten kritiko eta zehatza eskatzen duena, bai ETAREN indarkeriari nahiz beste edozein indarkeria motari dagokionez”.

Alkatea: ados, oharren bat egin nahi baduzue.

Joseba Elejalde Ribacoba: lehenengoa ETAKO presoeri dagokienez eta bigarrena PNVri dagokienez, zenbait paragraforekin ez baikaude inondik ere ados. Gustatu izango litzaziguke PNV alderdiak komuneko idazki bat egiteko hots egin izango bagintu, gure harri-koskorra ekarri ahal izateko. Dena den, ez du nahi edo ez du agertu nahi komuneko idazki batean, ba, jarraian irakurriko dut zergatik emango dugun aurkako botoa.

“Ezker abertzaleak, bere marka desberdinen bidez, mota honetako mozioak osoko bilkurara ekartzen dituen bakoitzean, beti iruditzen zait egia zuritzeke egiten dutela, gertatutakoa aldatzeko, errealitatea desitxuratzeko, historia faltsutzeko, etorkizunean biktimak borrorotzat eta borroeroak biktimatzat ikus daitezen saiatzeko.

Mozioan euskal presoek hitz egiten denean, nire buruari galdetzen diot euskal bortxatzaileak, lapurrak, hiltzaileak, tratu txarren emaleak edo pederastak barne hartzen ote dituzten preso horiek. Euskal presoek hitz egitea ETAKO presoeri erreferentzia egiteko hizkuntzaren tranpa bat da eta ezker abertzaleak urteak daramatza tranpa hori erabiltzen. Haiek euskal preso deitzen dituztenak ETAKO presoak dira, terrorismo-delituen ondorioz kondenatutakoak.

Espanian ETAKO presoeri aplikatzen zaien espetxe-politika preso guztiei aplikatzen zaien bera da, gure legedia zehatz-mehatz betetzen da eta Europako Giza Eskubideen Kontseiluaren sostengua du. Gainera, Europako Kontseiluak 2015eko urtarrilean honakoa adierazi zuen: “Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, Espainiak ez ditu presoek eskubideak urratzen, preso horiek beren familiengandik hurbil dauden espetxeetan ez egoteagatik”. Eta, halaber, adierazi zuen: “Espainian ez dago preso politikorik”. ETAKO kideei kondena jarri zaie arau-hauste penal larriengatik, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenarekin bat datorren prozesu baten ondoren.

Gaur egun, ETAKO presoak dira beren etxeetatik aldentzen dituen distantzia bere eskuetan dutenak. Horretarako eskatzen zaien bakarra da ETA talde terroristarekin loturak haustea, beren erantzukizunak onartzea eta biktimei barkamena eskatzea. Hau da, kondena beren etxeetatik urrun betetzen jarraitzen duten presoak hor daude oraindik ere terroristak direlako, desegin ez den elkarte bateko kide gisa, eta beren iraganaz harro daudelako. Egoera honi buelta ematea beren eskuetan dago: “Nanclares bidea”.

Mozioaren azken puntuak aldarrikatzen du presoak gizartearen parte direla. Paradoxikoa da, inondik ere, gaur gizartearen parte diren presoak defendatzeko soinekoak urratzen dituzuenek, duela gutxi arte, defendatu egiten zutenela talde terroristak batek gizarte horretatik botatzea etsaitzat zituenak, beste ideologia bat zutenak edo beren lan eta ahaleginarekin gure lurra eraikitzea lortu zutenak. Desberdintasuna da hildakoak behin betiko kanporatu direla, baina terroristek itzultzeko atak zabalik dituztela kondena bete bezain laster. Horretan ere desberdinak gara.

Mozioak egiten dituen zenbait alderaketa higuigarriak dira.

Gaur egungo Espainiak ez du inongo zerikusirik apartheid-arekin eta ezin daiteke ere Mandela konparatu ETAKO preso batekin, ETAKO preso guztiak kondena betetzen ari baitira prozesu judizial baten ondoren.

Bilduk mozio hau aurkeztu izanak, nire ustez, indargabetu egiten du Mandela Arauen izpiritua, uztaillaren 18an Nelson Maldelaren Nazioarteko Eguna ospatzea.

Mozioan aurkezten den kontaketa faltsua eta okerra da, torturak eta tratu txarrak nabarmentzen ditu ETAREN terrorismoa zuritzeke eta oreka faltsu bat lortzeko terroristen eta estatuko segurtasun-indarren eta espetxe-funtzionarioen artean.

Beti bezala ETAREN krimenak ahazten dituzue, erailketak, mehatxuak, bortxak eta bahiketak. Berriz ere giza eskubideen ideia partzialki azaltzen dute, alde baterantz soilik.

Halaber, ez duzue aipatzen Mandela Arauen atala non espetxe-langileak bereziki garrantzitsua den gizarte-zerbitzu gisa baloratzeko aldarrikapena egiten den, izan ere, dirudienez, ez baitago zuen diskurtsoan.



Inoiz ere, ez orain eta ez lehen, ez diozue ETari erreferentziarik egiten, ez eta giza eskubideekin zerikusi gutxi duen zerrrenda lotsagarri honetan ageri diren pertsonen jokabide legez kanpoko, gizagabe eta nazkagarriari ere.

Mandela ez zen egon zapaltzaileen aldean, zuek aurkeztutako zerrrenda bezala, baizik eta zapalduen aldean. Otegik ez zuen apartheid-a sufritu, aldiz, apartheid-a inposatzen saiatu zen. Ez zen biktimen ondoan egon, Mandela bezala, borroerokin bat egin zuen.

Mozio honen ondoren zer izango da hurrengo gauza, bakearen Nobel saria eskatzea hemen aipatzen den baten batentzat? Edo Otegirentzat?"

Arkaitz San Jose Martínez: beno, nik, gauza pare bat. Nik uste dut nire alderdiak aurkeztutako mozioa nahiko argia dela. Ez du desberdintasunik egiten preso batzuen eta besteen artean. Agerikoa denez, presoak, euskaldunak badira, euskal presoak dira, ez dugu inolako ñabardurarik egiten preso guztiek dutelako eskubidea hemen adierazitako hainbat baldintza jasotzeko, beren jatorria edo arrazoiak kontuan hartu gabe. Eskubide horiek errespetatzeaz ari gara, besterik ez. Zentzu horretan, ez dugu ulertzen ere PNVk zuzenketa gisa aurkeztutako mozioa, hau da, uler genezake PNVk aurkeztutako beste mozio bat bezala, baina tituluan Mandela esaten badu eta, ondoren, presoek edo elkarteek egin behar dutenaren eta ez dutenaren inguruko gomendioak ematen hasten bada. Mozio independente moduan, ongi egon liteke, baina erantzun gisa ez dugu ulertzen. Uste dugu beste afera batzuk jorratzen dituela, eta ez presoen eskubide pasiboak. Zentzu horretan, guk gure mozioa mantentzen dugu eta ez dakit zer egin beharko den, ez dakit PNVk, zuzenketa proposatu duen beste alderdia izanik, zer proposatzen duen. Haiena bozkatu, edo biak bozkatu, azken finean, akordio-proposamenik ere ez dago, beraz, beno, guk gurea mantentzen dugu eta hori esan nahi genuen, ez dugula desberdintasunik egiten. Hau da, gure ustez eskubide hauek preso guztiei dagozkiela, edonongoak izanda ere eta espetxeratze-arrazoiak edozein izanda ere.

Jose Luis de Valle Duquek osoko bilkura utzi du 10:00etan.

Joseba Vivanco: pare bat gauza argitu nahi ditut Josebak esandakoaren inguruan, eztabaida berrietan sartu gabe, izan ere, honetan seguruenik ez gara ados jarriko. Organismoaren gaia aipatu du, ez dakit zein giza eskubideen organismo, Espainiari arrazoa eman diona, ba gustatuko litzaidake ekarri izana Europako giza eskubideek Espainiako Gobernuaren espetxe- politikari eman dizkioten zaplasteko guztiak. Ematen ari zaizkion zaplasteko guztiak. Espetxe-politikari eta Espainiako epaitegien erabakiei. Rajoyk atzo esan bazuen ere estatu demokratiko batean gaudela eta botere-banaketa dagoela. Zaplasteko guztiak, izan ere, giza eskubideek Espainiako espetxe-politikari sostengua ematen diotela esatea barregarria da. Eta bide batez esan, PNVk bere azalpenean espetxe-egoera eztabaidagarri eta eztabaidatu bat aipatu duela, alegia, presoen sakabanatzearen espetxe-politika eta PNV berak bere garaian defendatu eta sostengua eman ziona. Esan du Espainia dagoeneko ez dela bera, eta Euskal Herria ere ez dela bera. Nik uste agerikoa dela Euskal Herria ez dela bera, duela bost urtekoarekin alderatuta ere, beraz duela hamar, hogeit edo hogeita hamar urtekoarekin alderatuta... ez da bera. Eta herri honetan norbait autokritika egin izanaz harro egon badaiteke, bere burua ongi aztertu izanaz, hori ezker abertzalea da, baina ez dut uste gainerakoak hori egoteko prest daudenik. Ez dute egin eta ez dut uste egingo dutenik. Eta norbait bada etengabe autokritika egiten ari dena, seguruenik autokritika gehiegi egiten ari dena, hori da ezker abertzalea. Logikoa iruditzen zait PP testu hau onartzeko gauza ez izatea, eta ez bakarrik testu hau, baizik eta Mandela arauak ere, ezinezkoa. Espetxe-politika aplikatzen duten moduan aplikatuta, barregarria izango litzateke zuek testu hau onartzea. Eta azkenik, Otegiren bakearen Nobel Sariarena. Ba ez dakit, baina onartu egin zen bakearen Nobel Sari bat Estatu Batuetako presidente bati ematea, bonbardaketak, hilketak eta gerrak egin ondoren. Eta, aizu, pentsatzen dut Espainiako Gobernuak ez zuela inolako arazorik izan hori onartzean... bakearen Nobel Sari hori eman bazen, ba edozein gauza gerta liteke. Besterik ez.

Alkatea: oso ongi, ba, besterik ez badago.

Joseba Elejalde Ribacoba: ezker abertzaleak aurkezten duen guztiarekin gertatzen den bezala. Gauza bat kontatzen duzue, zuen egia kontatzen duzue, eta sinesten duenak ongi,



baina... eta ez bagara gai hori gezurtatzeko, hemendik gutxira biktimak borroak izango dira eta borroak biktima gisa agertuko dira, primeran egiten baituzue hori. Eta badirudi ere, azken lau urteetan, biktimak, presoak, sistema demokratiko baten biktimak direla. Atsegin dut esaten duzunean duela bost urtetik hona Euskadin edo Euskal Autonomia Erkidegoan gauzak aldatu egin direla, baina begira pasa den astean, edo aste honetan, jakin dugu, ikusi dugu, norbaitek, ez dakit nork, autobusak margotzea erabaki duela...

Joseba Vivanco Retes: eta? eta polikiroldegian eta igerilekuan aldageletako armairuetako giltzak hautsi dituzte... eta?

Joseba Elejalde Ribacoba: ezker abertzalearen aldarrikapenak dira, gizarteari inolako onurarik ekartzen ez diotenak, aldiz, etengabe ari dira izorratzen, molestatzen eta administrazioei gastuak sortzen, eta beno, zuk uste duzu hori politika dela, hori normaltasuna dela?...

Joseba Vivanco Retes: Joseba, zuk hori esatea, zurea bezalako alderdi batekin, ustela ez dela dioen alderdia, eta kasuak besterik ez direla, ez esan orain niri zenbait pertsonak autobus bat margotzen dutelako, ezker abertzalea dela erantzule, ezker abertzalearen errua dela, ezker abertzalekoak direla eta hurrengo egunean publikoki salatu behar direla. Mesedez, ez adarrik jo. Izan gaitezen serioak ere adibideak jartzen ditugunean.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori horrela izan da azken berrogei urteetan, ez da berria.

Joseba Vivanco Retes: adibideak jartzen baditugu, irizpideekin izan dadila.

Alkatea: beno, amaitu duzue? Dena argitu ondoren, bozkatzeari ekingo diogu. Lehenengo EH-Bildu alderdiaren mozioa bozkatuko dugu.

Aurkako botoak:

Iñigo Gómez Unzueta eta Inmaculada Vivanco Retes, EAJ-PNV alderdikoak (2);

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Onartuta geratu da.

Alkatea: bozka dezagun PNV alderdiak aurkeztutako zuzenketa.

Aurkako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta eta Inmaculada Vivanco Retes, EAJ-PNV alderdikoak (2).

Ez da onartu.

8. EH-Bildu eta EAJ-PNV alderdien baterako mozioa Galder Barbado Bonilla Amurrioko bizilagunaren atxiloketaren ingurukoa.

Alkatea: irakurri nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: ez dut osoa irakurriko. Hasiera irakurriko dut eta ondoren ebazpena.

“Pasa den maiatzaren 27an, Galder Barbado Bonilla amurriotarra Guardia Zibileko agenteek zokoratu zuten goizeko 08:30etan herriko taberna baten atean. Institutu armatuaren kide gisa identifikatu ziren lau kaputxadunek gazteari eskuburdinak ipini zizkioten eta, akusazioa azaldu



gabe edo nora eramango zuten esan gabe, kotxe batean sartu zuten. Beranduago jakin zenaren arabera, Sansomendi Guardia Zibilaren kuartelera eraman zuten eta, deklaratu ondoren, libre utzi zuten eguerdian. Herritar honek behin baino gehiagotan salatu ditu publikoki estatuko segurtasun-indarren aldetiko esesteak eta mehatxuak 2008 urteaz geroztik. Kolpeak eta galdeketak errepideko kontroletan, listu- eta ile-laginak indarkeriaz hartzea, etengabeko esesteak eta polizia-zaintza. Guzti hori kontuan izanik, PNV eta EH-Bildu udal-taldeek mozio hau proposatzen diote Artziniegako Udalaren osoko bilkurari, eztabaida eta onar dadin.

Lehenengoa: Artziniegako Udalak Espainiako Estatuari eskatzen dio adierazpen-eskubidea errespeta dezan eta euskal gazte konprometituak, orokorrean, kriminalizatzeari utz diezaion.

Bigarrena: Artziniegako Udalak uste du honelako ekintzak oztopoa direla gure herriak bizi duen egungo testuinguru politikoan, eta baita ere bakearen eta bizikidetzaren demokratikoaren eraikuntza-prozesua indartzeko itxaropen zabalduarentzat.

Hirugarrena: Artziniegako Udalak Artziniegako herritarrei eta euskal gizarte osoari eskatzen die herritar guztientzako eskubide guztiak aldarrikatzen eta defendatzen jarrai dezaten, are gehiago testuinguru politiko honetan, guztiok lan egin behar baitugu bakea eraiki eta indartzeko”.

Alkatea: ez dakit zer edo zer esan nahi duzuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: ...agian herritar eredugarria izango da. Estatuko segurtasun- indarrengan sinesten dugu eta, batez ere, justizian sinesten dugu. Eta Amurrioko herritar hau atxilotu badute, legea urratu duelako izango da, epaiak esango du. Gazte honek legezkoa ez zen zer edo zer egin edo egiteari utziko zion.

Alkatea: zer edo zer esateko? Orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta eta Inmaculada Vivanco Retes, EAJ-PNV alderdikoak (2); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Onartuta geratu da.

9. Alderdi Popularraren mozioa haur-parkeen irisgarritasunaren ingurukoa.

Alkatea: Joseba, mozioa irakurri nahi baduzu.

Joseba Elejalde Ribacoba: “Haurrek jolasteko espazioak behar dituzte, denbora elkarrekin emateko, beren gaitasunak edozein izanda ere, eta berdintasunean bizitzen ikasteko, desberdintasunak oztopo izan gabe. Haurren parke eta zonaldeak haurrak bertan jostatzeko eta gozatzeko tokiak dira eta Alderdi Popularrean uste dugu espazio horiek haur guztien erabilerarako izan beharko lirakekeela. Helburu horrekin, aisialdiko espazio eta kulunkak guztiontzat irisgarri izatea nahi dugu, gaitasun desberdinak dituzten haurrak barne. Derrigorrezkotzat jotzen dugu haurren espazioek dagozkien irisgarritasun-baldintzak betetzea indarrean dagoen Europar Batasuneko haur-parkeen inguruko araudiaren arabera (UNE-EN 1177 eta 1176). Baina gaitasun desberdinak dituzten haurren irisgarritasuna haur-zonaldeetan ez da zertan eten behar instalazioetara oztopo arkitektonikorik gabe sartu ahal izatearekin; aldiz, haur-jolas egokituak jartzea planteatu beharko litzateke. Eredu gisa aipatu nahi dugu kolore deigarriekin margotutako jolasak ikusmen-desgaitasunak dituztenek errazago erabili ahal izateko, gurpildun aulkietan doazen erabiltzaileentzat diseinatutako zabuak, Braillez idatzitako kartelak jolasen azalpenekin, mahai egokituak eta abar luzea. Halaber, beharrezkoa da ere haur-zonaldeen kokapena eta azalerak egokitzea, mailarik gabeko parkeak bermatuz gurpildun aulkian doazen edo mugikortasun-arazoak dituzten haurrek eta beren familiek erabil ditzaten. Edozein kasutan ere eta alor honetako mediku espezialisten gomendioei jarraituz, gauza ez da parke edo



zonalde jakinak diseinatzea gaitasun desberdinak dituzten haurrentzat, aldiz, iradokizuna da haur-zonalde inklusiboak sortzea dagoeneko ditugun parkeetan, haur guztiei zuzendutakoak eta haur guztiak eroso eta integratu sentitzeko modukoak. Aurreko guztia kontuan harturik, Alderdi Popularrak ondoreko akordioa proposatzen du:

Lehenengoa: Artziniegako Udalak modu progresiboan egokituko ditu Artziniegako haur-parke publikoak, kaltetutako materialaren mantentze- eta ordezte-lanak burutzearekin batera, lehenago aipatutako irisgarritasun-ezaugarriak betetzen dituen instalazioak ipiniz.

Bigarrena: Artziniegako Udalak zonalde berrien irisgarritasuna bermatuko du uneko haur-parke publikoren bat zabaltzea proposatzen denean”.

Alkatea: zer edo zer esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: bai, baina beno... Zuek hitz egin behar duzue lehenik... Handienetik txikienera bitarteko ordenagatik diot.

Alkatea: nahi duzuen moduan. Ba beno, Joseba, mozioa, tira, egia da, beno, testuarekin, kontzepturen bat kenduta, mozioaren mamiarekin ados gaude, jakina. Egia da biztanle gehiago dituzten udalerrietan, gaitasun gehiago dutenez, mozio honetan aurreikusitakoa burutu daitekeela, orduan, ados, baina Artziniegako Udalaren baliabideak eta gaitasuna kontuan hartuta.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez gara eskatzen ari bihar bertan, matematikoki, araudia betetzea eta parke guztiak aldatzea. Eskatzen ari garena da, ekintzaren bat burutu behar denean, araudi berria kontuan hartzea eta haur guztientzat irisgarri egitea. Ez dakit, garestiagoa izango da, baina lortuko dena da haur guztiak elkarrekin jostatzea eta hori da nire ustez garrantzitsuena. Hemendik aurrera, zentzu horretan egiten den guztia, indarrean dagoen araudiaren arabera egin daiteke.

Alkatea: beno, bai, berriz ere diot ados gaudela, Udalak duen parke berriak sortzeko gaitasunaren barnean, edo parkeak eraldatzeko gaitasunaren barnean, ahal den neurrian, parkeak haur guztien eskura jarri behar direla kontuan hartuko dugu. Eta parke inklusiboak egiten saiatu behar dugu eta Artziniegako bizilagunen beharrak betetzen dituzten parkeak. Zer edo zer gehitu nahi baduzue.

María Lorente Burgos: ez, esan nahi nuen gauza bakarra da uste dudala “gaitasun desberdinak” adierazpena ez dela zuzena. Nik, formaren aldetik, esango nuke “desgaitasunen bat duten haurrak”. Gaitasun desberdinak denok ditugu. Hori bakarrik.

Joseba Vivanco Retes: gure kasuan, zentzu berean gutxi gorabehera, ados gaude mozioarekin, teorikoki logikoa da. Egia da lehenengo puntuan zalantzak genituela, urtero lanak burutzeko derrigortasunaren aldetik, konpromisoaren aldetik... Bigarren puntuari dagokionez, agerikoa da zonalde berri bat egiterakoan, hori kontuan hartu behar dela. Lehenengo puntuan zalantza hori genuen eta pentsatzen genuen, tira, agian logikoagoa litzateke, urte amaierako aurrekontuen eztabaida iristean, aukeraren bat badago kasuren batean partida jakin bat horretan erabiltzeko, ba, orduan esatea “aizu, hau erabiliko dugu ez dakit zertarako”. Hori argituta, kontuan hartu behar dugu ere, gaur egun, honelako... ez bakarrik honelako haur-jolasak, Mariak egindako terminoaren oharra kontuan hartuta, baizik eta edozein haur-jolas ipintzeko dugun tokia. Izan ere, plaza hemen frontoiaren atzean dugu eta guk dagoeneko aipatu izan dugu onuragarria izango litzatekeela ikerketa bat egitea plaza hori aldatzeko eta zabaltzeko, espazio gehiago izateko, agian ere honelako elementuren bat ipintzeko, edo espazio gehiago, baina, egia esan, aztertzen jarrita, ez ditugu elementu asko. Onuragarria izango litzateke, gai hau jorratzen dela aprobetxatuz, kontuan hartzea Arteko zelaian dauden zabuak, horiek ez dakit zenbat urte daramatzaten hor, eta egurra dagoen moduan dago. Ez dakit Aldundiaren eskumena diren edo Udalaren eskumena diren mantentze-, aldaketa- edo erreforma-lanak, baina beharrezkoak dira. Beraz, noski, argi dugu espazioa mugatua dela. Egitera goazenean, noski, jarri beharko da. Baina, era berean, azpimarratzen dugu hor egin behar dugula, baina bestelako egoeratan ere egin behar dela, hirigintza edo beste motatako egoeretan, askotan ahaztu egiten baitugu. Gero, gure herriak duen forma dela eta, alde zaharraren forma, zaila da, eta batzuetan alde batera uzten dugu, beraz, hori ere kontuan har dezagun nahi dugu, orokorrean. Baina bestalde, ba ia ia logikoa da hau egin behar dugula.

Alkatea: ohar bat, Arteko zelaian dauden zabuak Aldundiaren eskumenekoak dira eta dagoeneko eskatu diegu beharrezkoa den konponketaren bat. Bazen zabu bat, pneumatiko bat, baina baita ere, beno, egoera orokorraz gain, txirrista aldatzea eskatu dugu.



Joseba Vivanco Retes: nik uste dut espazio jakin horrek aldaketa bat behar duela orain. Ez goma aldatzea, baizik eta daudenak kentzea, aldaketa bat egitea, zeren eta, azken batean, Arteko zelaia dugu eta guztiok badakigu kanpoko jende asko erakartzen duela, udan jende asko biltzen dela, eta nik uste dut zerbitzuak eman behar zaizkiola ere. Berriak, zabalagoak, eta Aldundia bada eskumena duena, ba aizu, kasu horretan.

Joseba Elejalde Ribacoba: ohar bat, lehenengo puntuan eskatzen da aldaketa modu progresiboan egin dadin. Mantentze-lanak egitera doazela aprobetxatuz, esan nahi dut... ez dugu nahi bihar bertan egin dadin, baizik eta kontuan har dadin badirela haurrak, umeak, gaitasun desberdinak dituztenak eta haiek ere, logikoaenez, beren lagunekin batera jaso behar dutela heziketa.

Joseba Vivanco Retes: ados gaude, Joseba, gertatzen dena da erreforma hemen atzean, plazan, egiten bada, zabuak aldatu direnez, errealtatea da bi sartu direla, eta oso estu, ez baitago tokirik. Azken finean espazioa mugatua da...

Alkatea: oso toki mugatua dugu. Ados al zaude lanak Artziniegako Udalaren gaitasunaren arabera izatearekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: argi dago nik ez diodala eskatuko Artziniegako Udalari dena konpontzeko zuzkidura egin dezan. Ni eskatzen ari naiz, Aiaran onartu duten Europako araudi berriaren arabera, uste dut bi udalerrri handietan, elementu berriak gehitu ahala, ba kontuan har dadin mozio hau, besterik ez.

Alkatea: bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Bat ere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

10. 2016ko bigarren hiruhilekoaren aurrekontuaren exekuzioa jakinaraztea.

Alkatea: zerbait esan nahi baduzue.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude. Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

11. 2016ko bigarren hiruhileko berankortasun-txostenak eta batez besteko ordainketa-epea jakinaraztea.

Alkatea: zein ordainketa-epe dugu?

Idazkaria: 2,32 egun.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude. Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).



12. Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2016ko 90 eta 132 bitarteko dekretuen berri eman du.

Alkatea: zer edo zer esan nahi baduzue...

Arkaitz San Jose Martínez: beno, 97. dekretuan esaten da, edo ondorioztatzen da... 97. dekretuak Artziniegako Udalaren auditoretza energetikoarekin du zerikusia, eta nik esan nahi nuen egia dela EH-Bildu alderditik, Iñigo, zurekin bilera bat egin nahi dugula eraginkortasun energetikoaren alorreko gaiak jorrazteko, eta ezin izan dugula horretarako hitzordu bat zehaztu. Gauza da agian ez dugula hitzordurik zehaztu gai hori jorrazteko, baina badugu Lurraldeko Batzorde bat, eta seguruenik alor honetan gehiago lan egin lezake. Artziniegako Udalerako auditoretza energetikoaren enkargu honen ildotik, galdetu nahi nuen nolabaiteko proiektu edo ideia baten barne ote dagoen, eta abar. Izan ere, zurekin hitz egin nahi genuen harremanetan egon baikara EEEko, Energiaren Euskal Erakundeko, zenbait teknikarirekin, eta beno, ba hainbat proiektu badirela, horietako bat EEEak darama, beste bat IHOBek, eta batez ere hau diot honelako auditoretzak burutzeko %75era bitarteko diru-laguntzak ematen dituztelako, oker ez banago, EEEkoen kasuan. Begiratu beharko nuke hor apuntatuta dudalako. Baina beno, hori zen gutxi gorabehera galdera, hau da, oso ongi dagoela, saiakera oso ongi dagoela, baina guk bilerak egin nahi ditugu, ba beno, ba ikusi ditugun gauzak aztertzeke, batez ere hainbat Udal baitaude Euskadin, hamar zehazki, erreferentzia direnak nazioarteko mailan eta Parisko gailurrean egon zirenak uda aurretik eta abar. Ba beno, hortik lan egin behar dugu, eta tira, auditoretza energetiko bat egitea oso ongi dago, baina askoz ere hobe dago laguntza ematen badizute...

Alkatea: bai, auditoretza energetikorako diru-laguntza eskaera aurkeztu diogu bai EEEari eta baita Foru Aldundiari ere. EEEari eskatu dizkiogu eraginkortasun energetikorako laguntzak eta Aldundiari, Mugarri planaren barnean, diruz lagunduta baitago. Argiteria publikorako eta udal-erakineterako da plana. Elektrizitate-kontsumoaz gain gasolio-kontsumoa ere barne hartzen du. Eta egian esan, dagoeneko aipatu dugu, agian ez batzorde batean, agian Gobernu Batzordean, auditoretzaren xedea da ditugun kontsumoak sakonki aztertzea. Guk, tira, dinamika daukagu, beti, eta Udal asko, egia esan, dagoeneko ari dira gaia berrikusten, zeren beti Iberdrolarekin lan egitean, eta beno, jarraitasuna dago hor, ez dira potentziak berrikusten... Beraz, lehenik, koadro hori, aztertu beharreko neurriak, inolako kosturik gabe har daitezkeen neurriak, ba, gehienbat neurri burokratikoak direnak, inbertsio-neurriak izan beharrean, eta gero auditoretza energetikoak plan bat emango digu, inbertsioetarako proposamena inbertsio horiek eraginkorrako izan daitezkeen. Energia gutxiago kontsumitzeko eta, beraz, gutxiago gastatzeko. Hori da helburua. Baina auditoretzak diru-laguntza dauka. Beno, diru-laguntza eskatu dugu. EEEak eskatzen zuen baldintzetako bat zen, hain zuzen, auditoretza dagoeneko esleituta izatea.

Joseba Elejalde Ribacoba: barkatu, zeintzuk ziren EEEaren baldintzak?

Alkatea: auditoretza dagoeneko esleitua izatea. Diru-laguntza eskatzeko, aldeztu aurretik auditoretza esleitzea eskatzen zuten. Egia da, beste kasu batzuetan, diru-laguntza jaso arte itxaroten dela eta diru-laguntzaren arabera erabakitzen dela enkarguak pena merezi duen ala ez, baina kasu honetan EEEak eskakizun gisa jartzen zuten, eta hasierako kalkuluen arabera, diru-laguntza jasoko ez bagenu ere, kontratuetan egindako aldaketekin lor litezkeen energia-aurreztearekin auditoretza energetikoa amortizatuko litzateke, oso epe laburrean.

Arkaitz San Jose Martínez: auditoretza horrek aztertzen al ditu energia-hornitzaileak posibleak?

Alkatea: bai, energia-hornitzaileak ere posible dira. Eta energia berdea kontratatzea ere bai.

Arkaitz San Jose Martínez:

Alkatea: eskaintza interesgarriak badaude, baina egia da energia berdea zertxobait garestiagoa dela energia arruntarekin alderatuta. Baina bada ere energia berdearen aukera.

Joseba Elejalde Ribacoba: azpimarratu nahi dut espero dudala tiradera batean amaitzen duen ikerketa berri bat ez izatea. Bada EEEak prestatutako dokumentu bat Artziniegako Udalaren beharrak eta gabeziak aztertzen dituen energia eta kontsumoari dagokienez, eta ez zen inoiz



gauzatu. Ezin izan zen gauzatu edo ez genuen izan proiektuak zioena lasaitasunez aztertzeko eta praktikara eramateko aukerarik. Baina ikerketak balio dituen 5.445 euroak, ba balio dezatela Artziniega has dadin beharrezkoak diren urratsak ematen arazo energetikoaren aurrean, proiektuak adierazitakoa aldatuz.

Alkatea: erabilgarria izango da, lehenik eta behin, potentzietan egin beharko ditugun eta berrikusiko diren aldaketa guztiak, potentzia altuak antzematen diren kasuetan, haiek egingo baitituzte. Beraz, berriz ere diot, inbertsiorik gabeko lanak dira eta kontsumo txikiagoa eta aurreztea ekarriko dituzte. Zer edo zer gehiago? Ba, udal-kudeaketari ekingo diogu.

Joseba Elejalde Ribacoba: 114. dekretua. Artziniegako Dorrearen inguruan falta diren gauzak, eta jakin nahiko nuke nola ordainduko den falta dena. Enpresarekin akordioaren batera iritsi ote garen, Aramendía izango den Udalari zor horiek ordainduko dizkiona, nola kudeatuko den kobrantza, jakin nahiko nuke apur bat espediente hau zertan den.

Alkatea: beno dekretu hori dagoeneko, abal bat exekutatu da, eta bigarren puntuan egiten dena da Aramendíari eskatzea abalak estaltzen ez dituen zenbatekoak ordain ditzan.

Joseba Elejalde Ribacoba: dekretua uztailearen 5ekoa da, ez dakit erantzun ote duen edo ez. Zertan den jakin nahiko nuke. Kobratzeko aukerarik baden edo Alkatetzatik...

Alkatea: ba ez dakit erantzun duen, kobratzeko aukerei dagokienez, jakina badela aukerarik, beste edozein zordunekin gertatzen den antzera.

Joseba Elejalde Ribacoba: 108. dekretua, behin betiko onartzen duena SAUR-1 "La Hormaza" Sektorea birpartzelatzeko proiektua, noiz ebatziko dira berraztertze-errekurtsoak? Zergatik jakinarazi zaie Hitzarmen Batzordeari atxikita ez dauden bi erakunderi? Eta bada beste galdera bat, pertsonalagoa, baina aurkeztuko dut Batzordean, ondoren egin ahal izateko.

Alkatea: beno, kasu honetan, zuzenbidearen araberkotzat jo zen prozedura jarraitu da.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta zein da epea? Epe bat dago ebazpena emateko...

Alkatea: ba bai, epe bat dago. Noiz aurkeztu zen errekurtsioa? Epe bat dago... epe orokorra nik uste hilabete batekoa dela, ba irailean zehar prestatutako dugu errekurtsioaren erantzuna. Zer edo zer gehiago?

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude. Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

13. Udal-kudeaketaren kontrola.

- Alkatea: Lehenik eta behin, zenbait gai aipatu nahi ditut. Ampa Babio-rekin bilera, batzorde hori egiteke dago. Ampa Babio-ko ordezkariarekin hizketan aritu naiz bilera irailean ezartzeko, geratu eta bilera egiteko. Egia da eskolako zuzendaritzarekin ere hizketan aritu naizela eta esan didatena da ikasturte honetan ez dugula baimendutako haurrik, denak garraiatuko direla. Beraz, ba, Ampa-Babio-ren bilera horretaz gain, Zараobe Institutuko Ampa-ren bilera dago, batzorde hori, tira, ikusiko ditugu Artziniegan egon litezkeen kasu zehatzak, eta gehienak aurreko batzordean aipatu nituenak, hiru gai ditugu: alde batetik, haur baimenduen arazoa, bestalde, 12 urtetik gorakoen garraioan, distantzia lau kilometrotik beherakoa da. Guk, gure erreferentzia-zentroa Zараobe izanik, kasu honetan konponduta dugu. Eta gainera, bada beste alderdi bat eta da 16 urtetik gorakoen garraioaren arazoa, baina arazo hori ez da Artziniegarena bakarrik, Euskal Autonomia Erkidego osoko araudiaren arazoa da, eta beste erkidego batzuetan, badirudi garraioa doakoa dela 16 eta 18 urte bitartekoentzat, baina Euskal Autonomia Erkidegoan ez da eta ez da inoiz izan. Inma? 16 eta 18 urte bitartekoan garraioa ez da doakoa, ez?

Inmaculada Vivanco Retes: ez da.

Alkatea: ba hori da. Eta arazo hau ez da, hau da, ez da Zараobe Institutuaren arazo eskusiboa, ikasle asko, gehienak, Zараobe Institutura doazen arren, badugu jendea Bilbon, Sopuerta edo Somorrostron ikasten duena, eta egoera berean daude.



Bestalde, bagenituen ere, galdetu egin zen usoen gaiaren inguruan eta, egia esan, Joseluk alde egin behar izan du, baina Joseluk darama gaia, orduan, esan nahi dizuet usoen ugalketa jaki bidez kontrolatzen hasi garela. Momentu honetan bi elikadura-toki daude eta badirudi, nik ez dakit usoen migrazioaren beraren ondorioa ote den, baina badirudi udalerrian uso gutxiago daudela.

Bestalde, Arartekoaren salaketei dagokienez, gizarte-zerbitzuen bi espedienteren inguruan, esan nahi dizuet kasuetako batean dagoeneko jaso dugula ebazpena. Arartekoak dioena da, laburbilduz, aintzatetsi egin dela, eta Foru Aldundiak aintzatesten duela, prestazioa atzeraeraginarekin kobratzeko eskubidea, beraz, zentzu horretan, arindu egiten da izapidearen atzerapena, eta hainbat gomendio ematen dira prozedura berrikustearen inguruan eta Artziniegan, Aiara eta Okondorekin batera, zerbitzu hauek ematen dituzten langileen dedikazioaren inguruan. Guk, zentzu horretan, egia da hausnarketa egin beharko dugula, baina beno, dagoeneko eman ditugu lehen urratsak: Koadrilaren alorrean indartu da gizarte-langileari ematen zaion laguntza administratiboaren zerbitzua, aurtengo Eusko Jauriaritzaren diru-laguntza txikiagoa izan den arren kontzeptu honi dagokienez.

Gainera, ba beno, aipatu behar dizuet ere Artekaleko obraren gaia. Zuk, Joseba, behin baino gehiagotan adierazi duzun bezala, obra hori ez dago behar bezala onartuta eta egia da, osoko bilkuraren aktak berrikustean, obra horren ziurtagiriak onartzen direnean, beti gehitzen da adierazpen txiki bat esanez Udaleko talde teknikoak ez duela obraren jarraipenik egin ez baitzegoen kudeaketa-gomendiorik. Hala ere, 2013. urtean, txosten bat bidali zitzaion Foru Aldundiari gabeziak nabarmenduz, Arabako Lanak erakundearekin harremanetan egon gara eta izan da eta badago dituen gabezien kontrol bat. Halaber, kontuan hartzen dira eta gehitu egiten dira Udalak adierazitako gabeziak. Horietako zenbait konpondu egin dira, beste batzuk konpontzeke daude, baina Arabako Lanak erakundetik esaten didatenez, abala ez da itzuli, baina sozietatea hartzekodunen konkurtsoan dago. Krisiaren aurretik, enpresek ongi funtzionatzen zutenean, ez zegoen inolako arazorik, obra bat zegoenean beharrezko konponketak egiten ziren eta, ondoren, abala itzultzen zitzairen, baina kasu honetan, enpresa hartzekodunen konkurtsoan dago eta abala ez da itzuli. Guk ez dugu obra onartutzat eman, baina obra onartu egin da kudeaketa-gomendioa zuen erakundearen aldetik, hau da, Foru Aldundiaren eta Arabako Lanak erakundearen aldetik. Onarpen hori 2011. urtean burutu zen.

Joseba Vivanco Retes: baina, orduan, oraindik bada konpondu beharreko xehetasunik...?

Alkatea: bai, oraindik badira xehetasunak. Oraindik badira egiteke dauden gauzak.

Bestalde, auzoetako bileren ondorioei dagokienez, izapideak pixkanaka pixkanaka ebazten ari gara. Errazenekin hasten saiatu gara, irtenbide errazena dutenekin, esaterako, Santa Kolomako edukiontzia, beste edukiontzi bat eskatu zen eta egin dena izan da zegoena baino handiagoa den edukiontzi bat jartzea, Santa Koloman ez zeuden postontziak, Barratagureneko ispiluak, ez baitzeuden, eta bestalde ere bideen diru-laguntzan sartu dira bideen erreformak, hala erabaki baitzen bilera horietan.

Arkitektoaren ordutegiaren galderari dagokionez, astelehenetan eta asteazkenetan etortzen da. Hori betiere... pertsona bat etortzen bada eta ezin bazaio arreta eman lan-karga arrazoiak direla eta... ba hori kontuan hartuz. Baina printzipioz ordutegia astelehenetan eta asteazkenetan da.

Bestalde, Tobaseko zubiaren ildotik, errepedeen diputatuak berak esan zidan mantentze-lanak egingo direla zubian, eta AEMEk aurkeztu dituen idazkiei dagokienez, ba tira, nik bilera bat izan dut, bai AEMErekin eta baita alde zaharreko merkatari guztiekin ere, beno bat ezik, eta galdetu diet zein iritzi duten alde zaharra zortzietara arte irekitzearen inguruan. Eta nik uste hori zela kontatu nahi nizuen guztia. Orain, zer edo zer esan nahi baduzue.

- Joseba Vivanco Retes: ez, gauzatxo bat. Egin zen dagoeneko proba Goienkaleko gaiarekin, zoladurari dagokionez, hor aurrean egin da parrokiaren aurrean, pentsatzen dut proba moduan izango zela, baina ez dakit dagoeneko emaitzarik baden edo erabaki ote den noiz egingo den...

Alkatea: bai, oso ona dela, baina garestia dela.



Joseba Vivanco Retes: garestia da. Ona den guztia da garestia. Ona den guztiak gizentzen du eta ona den guztia garestia da.

Alkatea: beraz, teknikariak alternatiba baten bila ari dira. Guk badugu horretarako esleitutako kopuru bat eta...

Joseba Vivanco Retes: eta esleitutako kopurutik gorakoa da...

Alkatea: bai, ezingo gara iritsi aurreikusi genituen metro karratuetara.

Joseba Vivanco Retes: eta aldea oso handia da?

Alkatea: nahiko handia. Ezin dizut esan zenbakiekin, baina udal-teknikariak gaia aztertzen ari dira.

- Arkaitz San Jose Martínez: beno, iritzi nahiko orokorra, eta Josebak mendien eta mozketen gaiak komentatu duenaren ildotik, espezifikoki ardura hori hartzen duen zinegotzi bat falta dela, guk, Udalbatza eratu zenean eta Informazio Batzorde guztiak erabaki zirenean, esan genuen nahiko garrantzitsua iruditzen zitzaigula alderdi bakoitzak, udal-politikaren alor bakoitzak bere batzorde propioa izatea, edo bere izen propioa, izan ere, existitzen ez bada, gai horretaz ahazteko arriskua dago. Josebak kontatu duenaren ildotik, komeni da gogoratzea hori zela gure jarrera eta hori dela gure iritzia oraindik ere. Eta, halaber, faltan aurkitzen dugu, mendietan eta bestelako aferetan, erreferentzia-pertsona hori. Ulertzen dugu, erreferentzia-pertsonarik ez dagoenean Alkatea dela pertsona hori gai guztientzat, baina uste dugu, eta ez gara sartuko aztertzeraz gobernu-talde gisa nola funtzionatzen duzuen, baina gure iritzia da gutxienez erreferentzia-pertsona bat egon beharko litzatekeela batzorde bakoitzarentzat. Azken batean, egia da, Iñigo, zu zarela, eta hala dio legeak gainera, Informazio Batzorde guztien presidente naturala, baina hori ez da derrigorrezkoa. Eta uste dugu, antolamenduaren aldetik, hobe litekeela, batez ere gai garrantzitsu eta estrategikoetarako, erreferentzia-pertsona bat izatea. Hori azpimarratu nahi nuen bakarrik.

Alkatea: oso ongi iruditzen zait zure iritzia, baina guk uste dugu gaur egun Udalak duen egitura dela egiturarik aproposena. Eta batzordeak murriztea, kontzentratzea, hiru informazio-batzordeetan. Beste udalerrri batzuetan egiten duten moduan osoko bilkuraren gaietarako batzorde bakarria izatera iritsi gabe.

Arkaitz San Jose Martínez: bai, beno, hondakinenean batzorde hori aipatu da. Osoko bilkuren akordioetarako batzordean hartutako erabakia.

Alkatea: akatsa izan da hori. Akatsa izango zen, beste udal batzuetan hartutako akordioen transkripzioa baita, eredu bera delako. Eta seguruenik hori izango da Lodioko Udalaren akordia.

- Arkaitz San Jose Martínez: eta, bestalde, beste gai puntual bat, jakin nahi dugu momentu honetan zertan den Arteko tabernaren gaina, Arteko tabernaren gaia eta zeintzuk diren aukerak Erromeriaren egunean irekitzeko edo ez, eta abar. Dagoeneko adierazi genuen gure ustez aproposa zela txosnarekin batera taberna ateratzea, baina ez elkarrekin. Hau da, deialdi bera aprobetxatzea interesdunik bazen, kolektiboren batek interesik bazuen zerbitzua emateko, eta diru-sarrera horiek erabil daitezke tabernaren antolamenduaren ohiko funtzionamendurako, txosnarekin egiten den moduan, baina ez dakit, horregatik galdetzen dut zertan den. Izan ere, azkenean Ganzorrotzek hartu behar izan du bere gain, txosnaren zerbitzua ematekoak zirelako, baina ez dakit horretarako prest ote dauden. Badakit ere beste kolektibo batzuei, zehazki Builaka kolektiboari, planteatu zaiela aukera eta ez hartzea erabaki dela, eta jakin nahiko nuke zentzu horretan berririk baden...

Alkatea: begira, guk planteatu genuen txosna daraman elkarteak taberna ere eramateko aukera, hartara, elkarte bera izan zedin txosna eta Arteko taberna eramango zituena. Ganzorrotz elkarteak hartu zuen txosna eta esan zuen Arteko taberna ere hartzen saiatuko zirela. Nik badakit Ganzorrotz harremanetan jarri dela hainbat elkarerekin interesa zuen baten bat aurkitzeko helburuarekin, beno haiekin lankidetzan aritzeko Arteko taberna irekitzeko. Atzo esan ziguten oso zaila dela, egin dituzten kudeaketetan, ezetz, beno, azkenean ez direla inora iritsi, eta zail ikusten



dutela elkarte batek egun horretan Arteko taberna irekitzea. Beraz, interesa duen elkarterik ezean, ba, seguruenik, taberna itxita egongo da egun horretan.

Arkaitz San Jose Martínez: eta zerbitzua taberna edo kafetegiren batek emateko aukera?

Alkatea: ba begira, hor bi arazo genituen lehen. Bata zen kontzesioa irregularra zela, eta horregatik berreskuratu zen. Eta bestea zen lokala, lokalaren ezaugarriak, denok dakigunez ez baititu baldintzak betetzen zerbitzu hori emateko. Agian elkarte batekin, ba tira, ezohiko egoera da. Partikular batekin hainbat baldintza bete behar dira, eta guztiok dakigu baldintza horiek zeintzuk diren eta, adibidez, antzeko arazo bat dugu Erdi Aroko azokarekin osasun-kontrolak direla eta edo Gizarte Segurantzaren ikuskaritzak direla eta, etab.

Joseba Vivanco Retes: nik berriz ere diot uste dudalako Batzordean ere pare bat alditan esan dudala, eta uste dut lehengo egunean ere Gobernu Batzordean esan nuela. Beno, gaur diozu elkarte batek hartu ezean, eta badirudi hori ez dela gertatuko, itxita egongo dela. Nik personalki uste dut Udal Gobernuaren akatsa dela taberna hori itxita egotea Arteko jaiaren egunean. Hori da lokal horrekin gertatu den guztiaren emaitza. Nik uste, Udal Gobernuaren aldetik borondaterik izan balitz, gauzak lehenago egin izango zirela edo... baina iruditzen zait ez dela interesik egon, taberna hori ateratzerik bazen, interesa zuten pertsona partikularrak, pribatuak, bazeuden, hor txosna jartzerik bazen. Instalazioak erabili beharrik gabe ere, barra lokalaren kanpoaldean jartzerik bazen, zerbitzu hori emateko. Badakit zenbait pertsona hurbildu direla, uste dut zurekin hitz egitera, esateko taberna hori hartzeko interesa zutela. Nik sentitzen dut, egia da ikusi dudala zuen aldetik ez zegoela ere borondaterik urrats hori emateko, ez dakit zergatik, nik uste hor, zelaian, jendearentzat dagoen onura dela. Uste dut akatsa dela irekita ez izatea, baina beno, azkenean erabakia zuena da.

Alkatea: guk, alor honetan, sustatu duguna izan da herriko elkarteak izan daitezen taberna erabil dezaketanak. Ezin izan da.

Joseba Elejalde Ribacoba: honen inguruan, niri iruditzen zait aurten txosna hartzen duenak Arteko egunean zerbitzua emateko aukera hori, sekula ere ez dela ikusi. Aipatu dugu lokal horrek ez dituela baldintzak betetzen taberna gisa, edo esan dugu taberna zuen pertsonak ez zuela taberna legalizatuta zerbitzu horren kontratua zuen pertsona gisa, beraz, irigarria iruditzen zait hemen eztabaidatzen aritzea elkarte batek edo besteak hartuko ote duen. Taberna horrek ez baditu baldintzak betetzen, ez ditu beteko ere inongo elkarterentzat, ezohiko moduan edo mugarik gabe. Guztiaren kontra doala iruditzen zait. Azken finean, "ezohiko" diozu. Baldintzak betetzen baditu, betetzen ditu, eta betetzen ez baditu, ez ditu betetzen. Pentsatzen dut txosnak beteko dituela osasun-sailak ezarritako betekizun guztiak eta hor goian, aldiz, ez dakigu nola dugun gaia, benetan. Irekitzen bada, legearen arabera irekitzen da, eta irekitzen ez bada, ez da irekitzen eta herritarrek ordainduko dugu. Beste gauza bat da Udaletik pentsa dezagun zer egin daitekeen lokal horrekin, 12.000 euro inbertitu edariak sal ditzakeen lokala izan dadin edo gehiago inbertitu edariak eta janaria sal ditzakeen lokala izan dadin. Gai hori guk aztertu beharko dugu datorren urtera begira, zeren eta gauza bera gertatuko zaigu, ireki gabe jarraituko du. Bilera luze bat antolatu beharko dugu egin daitekeen eta egin ezin daitekeen guztia aztertzeko, edo lokal horretan inbertitu nahi duguna eta nahi ez duguna aztertzeko, beharrak...

Alkate: nik berriz ere diot lehen esan dudana. Iraganean kontzesio hori berreskuratu genuen kontzesioa irregularra zelako 73. urteaz geroztik, eta bestalde, lokalak, orain dagoen moduan, ez ditu baldintzak betetzen. Ez ditu betetzen irekitzeko eta orain arte ematen zuen zerbitzua emateko baldintzak. Eta guk elkarte bati atera genion, udalerriko elkarte batek, egun horretan, instalazio horiek aprobeztatzeko aukera izan zezan eta, tira, diru-sarrera gehigarri batzuk jaso zitzaizkien. Ezin izan da, eta horrela dago gauza.

Arkaitz San José Martínez: beste gauza bat. Espaloiaren obrak jorratu nahi ditut eta, nire ustez, argi eta garbi beharrezkoa da, ez dakit azalpen publiko bat antolatzea fase honetan jada, baina bai gutxienez bilera bat edo obren inguruko informazioa emateko azalpen bat antolatzea, xehetasunen berri emateko, noiz arte iraungo duten, seguruenik obren iraupena aldatu duten alderdiak zeintzuk izan diren eta, beno, Iñigok esan baitigu hona ere etortzen dela jendea eta berari galdetzen diola, guri etortzen zaigu jendea galdetzera, baina ezer gutxi dakigu, eta modu nahiko autogestionatuan, obrak zer diren eta zer betetzen ari den eta zer ez, desjabetzen gaia,



zubiaren gaia, zeren tira, hasierako proiektuarekin alderatuta, egingo dela ematen duena, eta hori egiteko epeak, nahiko desberdinak dira eta, beno, berriz ere diot guk saio bat edo antzekoren bat antolatzeke eskaera egiten dugula. Baina honi buruz hobe eta sarriago informatzea. Izan ere, ikasturtea hastear dago eta zubia birmoldatzeko udarako aurreikusitako obrak ez dira udan egin, eta beno, nik uste horrek guztioi eragiten digula eta, beraz, komunikazio hori ezinbestekoa iruditzen zaigu. Eta ez bakarrik zentzu batean, ez bakarrik Udalaren aldetiko informazioa, baina baita ere Udalak jendearen galderak eta ekarpenak jasotzea nahi dugu.

Alkatea: ez eta gainera afera asko daude joan ahala ateratzen ari direnak. Obra nola exekutatu ari den ikusi ahala ateratzen dira gauzak, agian duela hiru hilabete planteatzen ez zirenak eta orain planteatzen direnak. Eta gu, neurri horretan, etengabe ari gara Aldundiarekin, Foru Aldundiarekin, gauzak jakinarazteko eta, tira, ba zenbait irtenbide planteatzen dira eta pentsatzen duzu, ba egia esan irtenbidea ona da, baina seguruenik orain berandu izango da hori planteatzeko. Proiektua aurkezteko garaian planteatu izan bagenu, orduan agian garaiz egongo ginen. Zubiaren gaiari buruz, dagoeneko aipatu dugu, eta Batzordean jorratu genuen, ba arazoren bat zegoela Urrarekin, badirudi arazo hori zuzendu egingo dela, Aldundiarekin zegoen arazoa, baina horren atzerapen bat eragin du zubiaren obra, eta egia esan, Aldundiak dioena da obra hori berehala hasiko dela. Behin baino gehiagotan esan duzue onuragarria litzatekeela bilera hori egitea. Egia da duela hiru hilabete agian ikusten ez zena, gaur ikusten dela, beraz, zentzu horretan, etengabeko feedback-a dago eta oharra eta kexak jasotzen ditugu, eta guk kexa horiek aztertzen ditugu eta, Aldundiarekin batera, erantzuna ematen eta irtenbide bat aurkitzen saiatzen gara.

Arkaitz San Jose Martínez: guk kexa eta komunikazio guzti horiek, guri egiten dizkigutenak. Hau da...

Alkatea: Udalera iristen direnak. Zenbaitetan hizketaldi baten bidez iristen direnak, aizu, ba nik hau ikusten dut, beno, ba ikusiko dugu bideragarria den ala ez.

Arkaitz San Jose Martínez: beno, gera dadila jasota guk berriz ere eskatu dugula eta, lehen Josebak zabuen irisgarritasunaren eta abarren gaian aipatu duen moduan, guk uste dugula obra honi, orokorrean, erabat falta zaiola oinezkoen ikuspuntua, erreforma obra bat izan arren, beno, espaloi batzuk gehitzeko obra. Gainera, ibilgailuen mugikortasuna ahalik eta gehien errazteko pentsatu da obra, igarobide naturalak alde batera utzi behar badira ere eta, kontuan harturik eskola batentzako obrak direla, ez da pentsatu ez ibilbide laburrean ez eta ibilbide onenean ere, baizik eta ibilgailuentzat bide aproposenean. Lehen irisgarritasunaren gaia jorratu dugula aprobetxatuz, ez jangunerik, ez ia espaloirik, ez eta oinezkoen pasabiderik, seguruenik azkarrago joango dira, horren aurrean ezin dira sakangunerik jarri, gatazka bat dugu horrekin, beraz, sakanguneez ahaztuko gara.

Alkatea: bai, eskolaren irisgarritasuna Aldundiarekin batera berrikusi behar dugu, eta tira, azkarrago joango direla, ba ikusiko dugu.

Joseba Vivanco Retes: Arkaitzek planteatutakoaren eta Iñigok aipatutakoaren ildotik, gogorarazi nahi dut gure alderditik, uste dut ekainean izan zela, lau galdera planteatu genituela, lau galdera egin genizkion Udalari. Galdera horietako bat zen zergatik ertz honetatik doan espaloia ez den iristen txoriraino, ez eta txoritik haratago dagoen auzuneraino, izan ere, beno, ustez zonalde horri zerbitzua eman behar dioten espaloiak izanik, badirudi hango zonalde horri emandako zerbitzua nolabait anekdotikoa dela. Beste bat izan zen nola konponduko zen edo nola aurreikusia zuen Aldundiak konpontzea abiadura mugatzearen gaia orain geratu den boulevard guzti horretan. Irtenbideren bat pentsatu ote zen hemen erdiko irlatxo honetarako alde zaharrera sartzeko eta biribilgunetik datozen kotxeak ez eteteko, eta espaloien gaia, oinezkoen pasabidea eskolaren zonaldean. Ekainean aurkeztu genizkion Udalari, Udalak Aldundiari jakinarazi zizkion, baina guri oraindik ez digu inork erantzunik eman. Esan nahi dut, azken batean, hainbat galdera planteatu ditugu eta oraindik ez dugu erantzunik. Galderez ari gara, baina guztiok galdetzen diogu gure buruari zergatik hasierako proiektuak lur gehiago hartzen zion jauregiaren zonaldeari eta azkenean ez dio horrenbeste lur hartu, proiektuarekin alderatuta. Ba galdera hori darabilgu eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Zuk diozu Aldundiarekin bilerak egiten dituzuela, Arkaitzen dioten moduan, gure ere ez dakigu zein gai jorratzen dituzuen eta zeintzuk



ez, zein azalpen eman diren, aizu, azken batean argi dagoena da, lehengo egunekoa, Udalak hor xahutuko dituela 300.000€-tik gorako huskeria.

Alkatea: ez. Gauzak ongi badoaz, gutxiago gastatuko dugu.

Iñigo Vivanco Retes: beno, printzipioz, 300.000€-ko aurrekontua egin da...

Alkatea: 300.000€ erreserbatu ditugu.

Iñigo Vivanco Retes: 300.000€ gehi, oker ez banabil, Iberdrolaren gaia edo, Udalarentzat geratuko dena ere.

Alkatea: ez, ez, 300.000€ erreserbatuta.

Iñigo Vivanco Retes: beno, nik uste akordioan esaten dela Iberdrolaren gai horretan zati bat ere Udalari dagokiola. Tira, ikusiko dugu obra zenbatera igotzen den. Obra ere luzatzen da, eta zubia luzatu egin da, ikusiko dugu. Obraren prezioa izugarri igotzen ez bada, aurreikusitakoa baino garestiagoa ateratzen ez bada...

Alkatea: aurrera egin ahala gauzak agertzen dira, agian zonalde batzuetan baranda bat jarri behar dugu, ez baitago barandarik, eta ikusten dugu baranda bat hobe geratzen dela eta jarri behar dugu.

Iñigo Vivanco Retes: ...domina bat jarriko digute. Bikain. 300.000€, 300.000€ xahutuko ditugu eta ez da huskeria Udal honetan, beraz, pentsatu behar dugu herritarrek pentsatuko dutela Udaletik zehatz-mehatz kontrolatzen dela obra horretan egiten ari dena, espaloi horietan egiten ari dena. Oker ez banabil, ez dakit guk hasiera batean jarritako dirua espaloietarako izango den, beraz erantzunak prestatu behar dira azaltzeko zergatik egin den hori hor, zergatik beste hori beste hor, zergatik egin den ez dakit zer. Guk zenbait erantzun ez ditugu.

Alkatea: zuen idazkia Aldundiari bidali diogu. Egia da oraindik ez dela erantzunik jaso.

Iñigo Vivanco Retes: bi hilabete pasa dira, hiru hilabete, eta tira...

Alkatea: zergatik partzela batean gutxiago desjabetu den, ba ikusi beharko genuke, neurtu beharko litzateke. Hori egiteke dago. Abuztuan jakinarazi genituen gauza hauek eta Aldundiak oraindik ez du erantzun. Baina gauza da berrestea egindako desjabetzea zuzena dela.

Iñigo Vivanco Retes: nik, uler dezakegu neurri hauetako proiektu batean, aizu, gauzak hasi eta bi hilabeteren buruan eta gauzak nola doazen ikusi ahala, ba gerta liteke gauzak aldatzea. Beste gauza bat da Udal garen heinean hori zergatik aldatzen ari den eta horren ondorioak zeintzuk diren jakiteko obligazioa dugula. Izan ere, nik esan nuen lehengo egunean, falta zena da orain hori ikustea eta esatea, ez da barrurantz desjabetu, eta apur bat gehiago sartuko da errepiderantz. Falta zitzaiguna da guzti hau funtzionamenduan jartzen den egunean, lehengo egunean esan nuen bezala, kamioiak iristen diren egunean, hor bira egiten hastea eta berriz ere kamioiaren burua errepidearen beste aldean sartzea, eta guk pentsatzea, zertarako egin dugu obra hori hor eta zertarako egin dugu guzti hau lehengo arazo bera badugu eta ez badugu konpondu. Teorikoki, pentsatu behar dugu obra horiek egiten dituen jendea, obrak zuzentzen ari den jendea eta lanak egunero ikusten dituenak, zertan ari diren badakitela eta ongi egingo dutela, baina bestalde badakigu nola egiten diren obrak, dituzten akatsak eta hutsegiteak eta gertatzen diren gauza guztiak. Beraz, noski, Udal gisa, gure erantzukizuna da.

Alkatea: beno, guk kudeaketa-gomendio bat egin dugu eta ni gauzak ongi egiten dituztelakoan nago. Betiere kontuan harturik guk, gure eskumen eta baliabideen barnean, hori kontrolatu behar dugula.

Iñigo Vivanco Retes: baina, zuk diozun moduan, herritarrak badatoz eta galdetzen badizute "aizu, zergatik egin da hori horrela edo beste hori beste horrela?", ba Udalak, eta zuk, erantzuna eman beharko diezu. Guk hainbat galdera egin ditugun modu berean, eta Aldundiaren erantzunaren zain gauden modu berean. Hau da, jakitea zuk dirua jartzen baduzu, baina guretzat ere inbertsio oso handia da gauzak zoriaren mende uzteko eta gero esateko, "Zer gertatu da hemen?". Ba, begira, gauza da obra hau Aldundiak egiten duela. Nik hori hasieratik esan nuen, eh? Obra Aldundiak egiten du eta Aldundiaren eskuetan utzi da, baina erantzukizuna Udalarena da ere.

Alkatea: eta bestalde, espaloiei buruzko proposamenak, ba bai, ongi dago espaloia luzatzearena. Baina dirua iristen den tokiraino iristen da, eta agian ideia horiek lehenago planteatu behar ziren, planteatzeko garaian, baina orain jada, prozedura guztia martxan egonda, proiektua onartuta eta esleitura izanik, azalpenak eginak, beranduegi da.



Iñigo Vivanco Retes: lehengo egunean ere esan nizun. Erantzukizuna du erantzukizuna duenak, proiektu hau onartu zuenak.

Alkate: bai, bai. Baina alegazioen garaia mundu guztiarentzat zen.

Iñigo Vivanco Retes: orduan ere azaldu nuen. Guk aurka bozkatu genuen. Alegazioak egin genituen, obraren aurkako alegazioak egin genituen, espaloi hauek beharrezkoak ez direla esanez, proiektu honen eta espaloi hauen zati bat seguruenik beharrezkoa ez zela esanez. Alegazioak egin genituen, Aldundiak erantzun zigun, ezezkoa eman ziguten, ba primeran. Proiektua begiratu eta esaten badugu bi metro beharrean metro bat izan behar dela, metro eta erdi, ba ez da gure jarrera politikoa zelako, hau da, ez geundela ados inbertsio horrekin. Proiektua onartu duzuenak izan beharko zarete azalpenak eman beharko dituzuenak, ondoren, proiektua bikain atera bada, primeran geratu bada eta jendea pozik badago, aizu, jarri domina gainean eta herriarentzat bikain. Hori bai, bestalde, kontrola, hor egon beharra dago, eta gauzak okertzen badira, aurre egin behar zaie. Espero dezagun ezer ez okertzea eta dena ongi egotea, onuragarria baita herriarentzat.

Alkate: sentitzen dut baina hemen denok gara erantzule, ongi atera edo gaizki atera.

Iñigo Vivanco Retes: ez. Baina bakoitza, beti bezala, dagokion neurrian.

Alkatea: denok. Beno, zer edo zer gehiago?

Joseba Elejalde Ribacoba: Josebak aipatu duenez, esan nahi dut proiektu bat onartu zela. Onartu egin genuen proiektua beharrezkotzat jo genuelako. Beharrezkoa zen alde zaharra eskola-zonaldearekin eta polikiroldegiaren zonaldearekin lotzeko. Uler dezakegu, Arkaitzen adierazi duen moduan, kexak egon direla, niri ere iritsi zaizkit, eta herritarrekin bilera bat egitea ongi legoke. Eta bestalde, Alkatetzari berriz ere eskatzea, ez baita lehenengo aldia, Aldundiarekin mantentzen diren planteamendu guzti horiek alderdiei ere jakinaraztea. Izan ere, azkenean, uste dut denok izan beharko genukeela egindako bileren edo planteatutako aldaketen berri, eztabaidatu ahal izateko edo, besterik gabe, herritarrei azaldu ahal izateko zergatik egin den edo ez den egin aldaketa.

Alkatea: horren berri izango duzue. Beno, zer edo zer gehiago?

- Joseba Elejalde Ribacoba: idazki bati buruz, nahiko kezkatuta nauen idazki bat, Retes de Tudelako zentro sozio-kulturalarena. Zentro honen goiko zorua altxatzen ari da. Nik presazko txosten tekniko bat eskatu nuen eta pentsatzen dut obrak egin zituen enpresak laster eskatuko duela dirua atxikitako dirua berreskuratzea eta arazo bat dugu altxatu egiten delako... Behin baino gehiagotan joan dira, konpontzen saiatu dira, baina arazo berarekin jarraitzen dute.

Alkatea: bai, uztailan edo abuztuan aurkeztu zenuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit uztailan edo abuztuan izan zen.

Alkatea: bai, uztailaren 22an. Bai, hori txostenaren zain dago...

Joseba Elejalde Ribacoba: oso presazkoa da irtenbide bat aurkitzea zenbateko garrantzitsua gastatu baitugu zentroaren konponketan...

Alkatea: 30.000 €.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta herritarrak kezkatuta daude errehabilitazioaren gabezia eta akatsekin.

Alkatea: falta da, egia da oraindik txosten teknikoak egiteko dagoela. Halaber, gauza bat komentatu didate, eta uste dut esan nizula, lehenengo solairu horrek oso altuera gutxi duela eta, ondorioz, zorua ez zela berdindu horrek ekarriko lukeelako altuera are gehiago murriztea eta espazioa oso baxu uztea. Baina beno, txosten teknikoak falta da eta txosten teknikoak jarriko ditu...

Joseba Elejalde Ribacoba: hemen ari gara esaten zorua sabeldu egin dela. Agian hobe izango zen 10 cm-ko altuera galtzea eta zorua behar bezala egotea, ez dakit. Ni ez naiz arkitektoa, ezta arkitekto-laguntzailea ere, eta ez dut proiektua egin, baina proiektua egin duen arkitektoak txosten bat egin beharko luke konponbideren bat proposatzeko.

Alkatea: zure idazkia helarazi zaio eta ez hori bakarrik, izan ere, gaia, agerikoa denez, lehendik ezagutzen duzu.

Joseba Elejalde Ribacoba: bestalde, beti bezala, auzoetako eskaerak ditugu. Jolas-gela bat, hiru urtean behin, lau, bi, urtean behin egiten diren eskaerak. Bentako zonaldeak urte asko



daramatza espaloi bat eskatzen. Badakit ez dela Udalaren erabakia espaloia egitea edo ez egitea, baina beno, nik Alkateari helarazten diot neurriak hartzeko beharra eta Aldundiari obra hori egin dezan eskatzeko beharra. Hainbat zatitan burutu dezan. Nik lehenik eta behin egingo nuke, eta hori nire planteamendua da eta hala errepikatuko diot irailan Hirigintza Zuzendariari, errepideen arduradunari, Montenegro tabernatik el Fresno tabernara doan tartea. Biztanleria zaharkitua dugu, adineko biztanleria, badira, Jainkoari eskerrak, zonalde horretan bizi diren umeak, eta auzo horretan jostatzeko etengabeko arriskuan egon behar dutenak, izan ere, badakizue trafiko handiko errepidea dela, seinaleei jaramonik egiten ez dieten ibilgailuz beteta. Badakit gainera, hala jakinarazi baitidate, eta horren inguruko idazkiak erakutsi dizkidatelako, Bentako zonaldean haurrentzako parke bat eskatu dutela behin baino gehiagotan. Eztabaidatu beharko genuke oinarritzko eta lehentasunezko ekintzen barnean, hirigunean ere baditugunak edo auzoei ere mota honetako aisiarako zonaldeak eman behar ote zaizkien.

Alkatea: ba nik uste dut auzoen bilera izan genuenean ez zela aipatu haurrentzako parkearen gaia.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik badakit idazkiak badirela, eta niri idazki bat eman didate. Dena den, helaraziko dizut.

Alkatea: noizkoa, zeren azken urte honetan, ez dut gogoratzen. Eta auzoen bileran...

Joseba Elejalde Ribacoba: esan dut aurtengoak direla eta aurreko urteetakoak. Behin baino gehiagotan eskatu dute, ez da orain lehenengoz eskatu den gauza bat. Espaloia iaz eskatu zuten, eta duela bi urte eta duela hiru. Nik, soilik, hemen adierazten ditut auzo horietan ditugun beharrak, eta auzoak dauden moduan daudela. Nik ez dakit zenbat aldiz esan dudan hemen, mesedez, Retesen bi banku eta lau zaborrontzi jar daitezten. Baina berriz ere eskatu beharra dago. Mesedez, jarri bi banku eta lau zaborrontzi. Nik ez dakit Retes de Tudelan, Santa Koloma auzoan, Sojoguti auzoan eta Mendieta auzoan. Baina handik ibiltzen den edozeinek, izan bizikletaz, izan oinez, korrika edo edonola ere, ba, paper bat bota nahi badu, ikusiko du ez dagoela zaborrontzirik edo esertzeko eserlekurik. Baina beno, berriz ere egingo dut eskaera hau, ez dakit zenbat egin ditudan jada, agian hamar, hamabost edo hogeita bost. Berriz ere helarazten dut, ez dakit zenbat gauzetarako 1.000€ gauza gutxi diren eta beste batzuetarako arazo handia diren.

Alkatea: ez, baina begira, Bentan hain zuzen ere, auzoekin egin genuen bileran, hiru gauza garrantzitsu geratu zitzaizkidan buruan. Egin beharreko hiru gauza. Bata da uraren gaia, batzuetan ura arreago heltzen baitzaie orain. Ura iragazita dator, kloroarekin, analisiak zuzenak dira, baina kolore txarra du. Bestalde saneamenduaren gaia genuen, putzu beltzen berrikusketa bat eskatu zuten zein egoeratan dauden jakiteko. Eta bestalde ere, bidegurutze baten irteera aipatu zen, Anguloko bidegurutzean bertan, eta Villasana doan bidegurutzean, han Aterpean, etxe batzuetara ematen duen irteeran, egia da bidegurutzea eta bidea gaizki dagoela, zuhaitz bat dago, pikondo bat, ikusmena oztopatzen duena. Ni buruz ari naiz, baina nik dakidala, hori da egoera. Eta, egia esan, ez gara auzoez ahaztu, baina tira, bagoaz gauzak egiten. Hainbat eskaera hemen adierazi dituzte, bilera hauetan, eta, ahal den neurrian, irtenbideak aurkitzen saiatzen gara.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik diot, ahal den neurrian, auzoak dauden moduan daudela. Eta buelta bat ematen badugu bazter utzitako auzo horietan barna. Zergatia? Nahi duzuna esan diezadakezu, baina auzoak dauden moduan daude. Zuk badiozu eskaera garrantzitsuenak aurkeztu ez dituztela, nik diotsut baietza, are gehiago, idazkiak sartu ditut, hor daude, datarekin. Zaude lasai, hurrengo osoko bilkurara ekarriko ditut eta esango dizut herritarrek noiz aurkeztu dituzten idazkiak, auzoko guztien sinadurarekin, eta...

Alkatea: ez, ez, eta gainera... Ea, abiapuntuzat hartuta, argi eta garbi ados gaudela diozunarekin, espaloiak beharrezkoak direla, eta datu hori, zure idazkiaren arabera, 2011az geroztik hor dagoela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ...behar hori goiko instantzietara iristea nahi dut, horiek baitira hor espaloi bat egin daitekeen edo ez erabaki behar dutenak, eta noiz egin daitekeen. Nik jakinarazi dut, besterik ez. Jakinarazi dut Udalbatza jakinaren gainean egon dadin, nahiz eta seguruenik jakingo duten, sarrerak begiratuko dituztelako. Baina beno, hor uzten dut.

Beste gauza batek kezkatzen nau ere. Urtebete beteko da eta berriz ere ospatuko da jaia Arteko zelaian eta zuhaitzak ez daude batere ongi, oso gaizki daude.



Alkatea: zuhaitzak, bazen hesi batez inguratuta zegoen zuhaitza, hesia kendu da eta zuhaitzaren azpian zegoen mahaia beste zonalde batera mugitu da.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuhaitza oraindik ere hor dago eta nik urtebete baino gehiago daramat zain, izan ere, dagoeneko ez dakit, ez dakit suhiltzaileen buruari, bera baita Araban parkeen ardura duena, denbora gehiegi eskatzen dion edo ez dakit, zeren urtebete txosten bat eskatzeko, eta oraindik ere zuhaitza erortzearen edo ez erortzearen zain egotea, hirurehun urte eman baditzake horrela, ba beno. Irrigarria iruditzen zait nirekiko. Duela urtebete txostena eskatu eta txosten hori jaso ez izana.

Alkatea: ez dugu txostenik, baina hemen egon zenean, ez suhiltzaileen burua, baizik eta ingurumen-saila, soberan baitakizu zuhaitz horiek *cerambyx cerdo* intsektua dutela eta espezie babestua denez, ezin da edozein modutan jardun.

Joseba Elejalde Ribacoba: ados, hori zuk esaten didazu, baina ez badidazu ezer ere esaten txosten batean, aditu baten txosten batean, eta hartara ez nuke izango zurekin gai honi buruzko eztabaidarik. Txostena zuri eskatu behar dizut, berarekin hitz egin baituzu, eta berak esango zizun bere hitzetan, telefonoz, edo paperen bat edo idazkiren bat emango zizun, Udalbatzaren gainerako kideok ezagutzen ez duguna. Nik bakarrik diot urtebete igaro dela eta arazo berarekin jarraitzen dugula.

Alkatea: ni Aldundian egon naizenean, esan diedana da zuhaitza horiekin ezin badaiteke ezer egin, *cerambyx cerdo* intsektua dutelako eta ingurumen-sailak uste duelako eredu gisa balio dutela, espezie horrek zuhaitzei nola erasotzen dien ikusteko, agian egin beharko litzatekeena da, zuhaitza baldintza seguruetan dagoela bermatzeaz gain, eta hesia jartzeaz gain, egin beharko genukeena da balioestea.

Joseba Elejalde Ribacoba: baldintza seguruetan, nola? Hori egiterik ez dago. Esan al dizute nola egingo duten? Duela 20 urte erabiltzen den sistema bera erabiltzen da gaur egun, oraindik ere indarrean dago. Hormigoia hori sakongunean, zuhaitzean botata dago, besterik ez. Ba al du inolako erresistentziarik edo edozein momentutan eror daiteke? Ez dago zapata bati lotuta, ez du burdinazko egiturarik, hau da, hormigoia botatzen da besterik gabe eta hormigoia gogortu arte itxaroten da. Hogeitaz beranduago ez dago zuhaitzik, zomorro madarikatu horrek jan egin duelako.

Alkatea: momentu honetan bi zuhaitzen hesia duten inguruan.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, hesia. Gauza da hesiaz inguratuta ongi daudela. Eta zein segurtasun-erradio errespetatu behar dugu herritarrok? Pentsatzen dut arriskuren bat egongo dela. Ez dakit izango duen, eroriko balitz, bi metroko, bost metroko, zazpi metroko edo hogeita zazpi metroko akzio-erradioa. Zuk diozu, "ez, hesia du". laz oso zinta politik jarri zizkieten, zuri eta gorriak, primeran zeuden...

Alkatea: aurtan ere bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: hain zuzen ere, hori normala iruditzen zaizu? Niri ez.

Alkatea: eskatu dudana da, berriz ere diot, benetan horrek hesiz inguratuta egon behar badu, behar bezala egin dadin, eta ez zinta zuri eta gorri batekin. Eta eskatu dut ere gure zuhaitzak *cerambyx cerdo* espeziearen eraso jasaten ari badira, eta espezie horren aurka ezin badaiteke ezer ere egin, ba, gutxienez, informazio-panel bat jar dadila zuhaitz horien egoera azalduz eta zergatik ezin daitezkeen ukitu argituz. Adituek diote dirudienez oso zaila dela *cerambyx cerdo* espeziea ikustea, baina ekainean hara hurbilduz gero, beno, hori ikuskizuna da benetan, zuhaitz horiek zomorro horiez beteta daude..

Joseba Elejalde Ribacoba: azkenean arazo gehigarria da, herritarren bati kaltea eragin diezaiokkeen arazoa, larunbat arratsalde, edo ostirala edo astelehena, Arteko zelaian pasa nahi duen pertsonari gerta dakioke, esaten ari zarenaren arabera. Hau da, gauza bat da Aldundiak burutu dezakeen jarduketa eta beste bat da Udal honek eduki beharko lukeen txostena jakina ahal izateko zergatik jardun daitezkeen edo ez zuhaitz horietan. Eta eskatzen ari naizena horren konplikatu bada, ba gai honi buruzko txosten bat egin dadin eskatzen jarraituko dut.

Joseba Vivanco Retes: mahaia alden du zaion zuhaitzak, hesia du ere bai?

Alkatea: hesia du. Mahaia kendu da eta hesia jarri zaio. Egia da berriz ere aldi baterako itxitura jarri zaiola. Makilak jarri dira zinta zuri eta gorri horrekin. Nik eskatu dudana da, benetan zuhaitz horiek ukitu ezin badira, ba...



Joseba Vivanco Retes: begira, nik uste dut gaia dela, nire ustez arazoa da, batez ere, nola uztartu zomorro horren babesa, legez errespetatu behar dena, zuhaitz hori edozein egunetan eroriko ez dela bermatzearekin, egun horretan 100 km/h-ko edo 80 km/h-ko haizea egon delako, aurreko hartan gertatu zitzaigun moduan, eta mutur horretara iritsi beharrik gabe, zuhaitz horietakoren bat erortzera iritsi gabe, barrutik dauden moduan daudelako. Beraz, noski, ez dakit zein punturaino hor, ez suhiltzaileek, baizik eta ingurumen-sailak edo Aldundiak edo ez dakit nori dagokion zuhaitzen osasuna neurtzea, pentsatzen dut horrekin jolastuko dutela, baina gauza da zein punturaino jolastuko duten gauza baten segurtasunarekin eta bestearen babesarekin.

Alkatea: momentu honetan hesia dute.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina zuhaitza erortzen bada, Josebak zioen moduan, ez dakit zuhaitzaren perimetro osoa hartuko duen edo zintak zuhaitzaren inguruan metro eta erdi hartzen duen eta kito. Kontuan harturik adar horien barrenean oraindik ere porlana dagoela, arazoa ez da adar zahar bat apurtu eta erortzea, baizik eta oraindik porlana daramatela barnean.

Alkatea: beno, zer edo zer gehiago?

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude. Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamaikak eta hamabost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.